

ABERRI ESTATUTUAK



ABERRI **ESTATUTUAK**

2016

IRUÑA 2016
BATZAR NAGUSIA

guztiok bat



ABERRI ESTATUTUAK 2016

*Sabin Etxean 2016ko urtarrilaren 26an egindako
Ezohiko Aberri Batzarrak onetsiak eta
Iruñean (Baluarten) 2016ko otsailaren 13 eta 14an ospatutako
VII. Batzar Nagusian berronetsiak*

A U R K I B I D E A

Orr.

OINARRI NAGUSIAK.....	5
ATARIKO TITULUA	7
I. TITULUA.- ALDERDIKIDETZEA	8
II. TITULUA.- EAJ-PNVren ANTOLAKETA	15
I. kapitulua.- OINARRI NAGUSIAK	15
II. kapitulua.- URIETAKO, HERRIALDEETAKO ETA ABERRIKO ERAKUNDEAK	17
<i>Lehenengo atala: Uri Erakundeak</i>	17
<i>Bigarren atala: Herrialde Erakundeak</i>	18
<i>Hirugarren atala: Aberri Erakundea</i>	19
III. kapitulua.- EUZKADIZ KANPOKO ERAKUNDEAK.....	19
IV. kapitulua.- EUZKO GAZTEDI.....	20
III. TITULUA.- BATZARRAK	21
I. kapitulua.- URI BATZARRAK	21
II. kapitulua.- HERRIALDE BATZARRAK	22
III. kapitulua.- ABERRI BATZARRA	24
IV. kapitulua.- BATZAR NAGUSIA	29
IV. TITULUA.- ALDERDIKIDEEI IRITZIA ESKATZEA	31
V. TITULUA.- BURU BATZARRAK.....	32
I. kapitulua.- URI BURU BATZARRAK	32
II. kapitulua.- HERRIALDE BURU BATZARRAK	34
III. kapitulua.- EUZKADI BURU BATZARRA.....	35
VI. TITULUA.- DIZIPLINA, BERMEAK ETA ZAINGOA.....	37
I. kapitulua.- EPAILE ETA EPAIMAHAIK	37
<i>Lehenengo atala: Arlo orokorrak</i>	37
<i>Bigarren atala: Uri Epaille eta Epaimahaiak</i>	38
<i>Hirugarren atala: Herrialde Epaimahaiak</i>	39
<i>Laugarren atala: Aberri Epaimahaia</i>	39
II. kapitulua.- BERMEAK ETA ZAINGOA	40

	<i>Orr.</i>
VII. TITULUA.- HERRI-KARGUDUNAK.....	42
I. kapitulua.- UDALERRIETAKO HERRI-KARGUDUNAK.....	42
II. kapitulua.- HERRIALDEETAKO HERRI-KARGUDUNAK.....	43
III. kapitulua.- ABERRIKO HERRI-KARGUDUNAK	44
VIII. TITULUA.- ALDERDI BARRUKO KARGUETARAKO ETA HERRI-KARGUETARAKO HAUTAGAIK AUKERATZEA	45
IX. TITULUA.- KARGUEN EGIKARITZAREN MUGAK.....	46
I. kapitulua.- AGINTALDIEN IRAUPENA	46
II. kapitulua.- BATERAEZINTASUNAK.....	47
<i>Oinarri Orokorrak.....</i>	<i>47</i>
<i>Lehenengo atala: Bateriaezintasun osoak.....</i>	<i>47</i>
<i>Bigarren atala: Alderdiaren barruko karguen arteko bateriaezintasunak.....</i>	<i>48</i>
<i>Hirugarren atala: Alderdiaren barruko karguen eta herri- kargudunen arteko bateriaezintasunak</i>	<i>48</i>
<i>Laugarren atala: Bateriaezintasunak kentzea</i>	<i>51</i>
III. kapitulua.- KARGUAK EZ METATZEA.....	53
X. TITULUA.- EAJ-PNVren ANTOLAKETA EKONOMIKOA.....	53
XI. TITULUA.- KOMUNIKAZIO ETA IRUDIAREN ESKUARTEAK	56
XII. TITULUA.- ABERRI ESTATUTUAK ALDARAZTEA.....	57
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	57
AZKEN XEDAPENAK	58
ERANSKINAK: – Sinboloa, Siglak, Web gunea eta Posta Elektronikoko helbidea.....	60
– Bateriaezintasunen Taula	61
EAJ-PNVren Emakume eta Gizonen arteko Orekarako Plana	62

OINARRI NAGUSIAK

1. SABINO ARANA GOIRIK sortutako Euzko Alderdi Jeltzaleari (EAJ-PNVri) JAUNGOIKOA ETA LEGE ZARRA goiburutik datorkio izena. Esaera horrek oinarrizko bi elementu elkartzen ditu: bizitzeko eta ulertzeko modu bat, eta Euskal Aberriaren baieztapena. Aberri honen izate politikoa beraren Aberri-burujabetasuna berreskuratzearekin batera adieraziko da.
2. Euzko Alderdi Jeltzaleak honelaxe definitzen du bere burua: Euskal alderdi demokratikoa, parte-hartzailea, anitza, akonfesionala eta gizatiarra, garapenari eta gizakiaren onerako diren aurrerapen guztiei irekia.
3. Euzko Alderdi Jeltzaleak Euzkadi du Aberritzat, eta euskaldun jendea bizi den Pirinioetako bi aldeetara dagoen lurraldetzat; ikurrina banderatzat eta Euzko Abendaren Ereserkia aberri himnotzat.
4. Euzko Alderdi Jeltzaleak euskara dauka euskal aberri hizkuntzatzat, eta haren normalizatorako behar den ardura nazionala aintzat hartzea eskatzen du, euskal hiritarren hizkuntz eskubideak babestuak eta bultzatuak izan daitezen, zeinen zerbitzupuan egongo diren EAJ-PNVko herri-kargudunak eta Alderdi barruko ardura dutenak.

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere egiten ditu hizkuntz normalizazio eraginkorraren oinarriak: euskaldunen hizkuntza propioa, gutxiengoduna eta gutxitua den euskararen aldeko ekintza eta jardunbide eraginkorrerako beharrezkoa den ekimen horren aurrerakortasuna.

5. Euzko Alderdi Jeltzaleak honako helburu hauek ditu:

- a) Proiektu politiko jeltzalea gauzatzeko tresna izatea.
- b) Euzkadiko herritarren gizarte, ekonomia, politika, kultura eta arlo guztietako garapen eta aurrerakuntza handiena lortzea, elkartasuna, jasangarritasuna eta aukera berdintasuna abiapuntutzat hartuz.
- c) Euskaldunon heziketa eta partaidetza politiko eraginkorrerako bide izatea.
- d) Proiektu politiko jeltzalea eta beraren jokaera politikoa hausnartu eta etengabe berriztatzeari ekitea.
- e) Botere politikora heltzea, batez ere, erakundeen bitartez, hauek izanik haren proiektua egia bihurtzeko bidea.
- f) Iritzi publikoan etengabe aritzea, hiritarren eta gizarte-taldean partaidetza bultzatzea, betiere euskal gizartearen protagonismoa beraren etorkizunaren eraikuntzan errespetatuz.
- g) Gidalerro politikoak finkatzea, eta berak herri-erakundeetan dituen ordezkariak bideratu, lagundu eta kontrolatzea.
- h) Kargudunei bereziki eta alderdi-kideei oro har, beren eguneroko jardunean zintzotasunarekiko, erantzukizun etikoarekiko eta gobernu onarekiko konpromisoak gidatutako jokaera exijitzea.

Alderdiko herri kargudunek burutu-ko duten kudeaketa gardentasun printzipioan oinarrituko da une bakoitzean aplikagarri den legeriaren barruan.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalearen hizkuntza euskara da. Horretaz gainera, beste hizkuntza batzuk ere erabili ahal izango dira, gizarte beharrianak, tokian tokikoak eta gobernu hobeko baten beharrianak zaintzeko.

2. artikulua.- EAJ-PNVk ikurrina du euskal aberri-ikurtzat, Euskal Herriak, bere Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak hautatua; honako ezaugarriak ditu ikurrinak: hondo gorria, itxoroski berdea eta gurutze zuria gainetik.

3. artikulua.- Halaber, EAJ-PNV honakoek identifikatzen dute:

1. Bere sinboloa, Eranskinean emana, bi elementuk osatzen dute eta hauek dira: anagrama edo koloreko bola eta logotipoa, EAJ-PNV hitzarekin. Markaren inguruan sinboloa babesteko zuriunea izango du eta ez du beste elementu eraldatzaile ikusgarririk izango, ez testurik, marrazkirik ezta apaingarrikerik ere. EAJ-PNVren irudi ikusgarriak bere historia osoan ordezkatu duten betiko kolore berde eta gorria eramango ditu. Anagramak berdetik gorrira doan degradatua eramango du eta logotipoak, ordea, kolore beltza izango du.

Bozketa orrietan erabiltzeko, onartuta dago kolore bakarrek bertsio beltza erabiltzea, koloreak tinta bakararekin ordezkatzen ditu eta positiboan edo negatiboan joan daiteke.

2. EAJ-PNVren egoitza soziala eta helbidea Euzkadi Buru Batzarraren egoitza soziala eta helbidea izango dira, sortzailearen jaiotetxean, 48001-Bilbon (Bizkaia), Ibañez de Bilbao kaleko 16.ean.

3. Web orrialdea eta helbide elektronikoa dira Eranskinean ematen direnak.

4. Bere jarduera esparrua anitza da: Europa, Estatuak, autonomia, foru eta udal esparrua edo/eta Frantziar estatuko esparru baliokidea, esparru geografiko horietan egingo diren hauteskunde prozesuetan aurkeztuko delako, une bakoitzean aplikagarri den legeriaren arabera.

I. TITULUA ALDERDIKIDETZEA

4. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalekoa izateko, ezinbesteko baldintza da alderdikidea izatea.

EAJ-PNVko alderdikideak konpromisoa hartuko du, Erakundearen barruan euskal aberriaren eta gizartearen askatasuna lortzen laguntzeko, Alderdiaren barne-jardunbidean eta haren ekintza politikoan eragile izanik.

5. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalearen alderdikidea izateko baldintza hauek bete behar dira:

a) Pertsona fisikoa izatea, adinez nagusia eta jarduteko ahalmena murriztuta ez izatea.

b) Beste ezein alderdi politikoren alderdikidea ez izatea.

c) Euzko Alderdi Jeltzalearen ideien aurkako izaera politikoko zein politiko-sozialeko beste erakunde batekoa ez izatea.

d) Euzko Alderdi Jeltzalearen ideologia onartu eta beraren proiektu politikoaren defentsa publikoarekin konpromisoa hartzea.

e) Organo eskudunari alderdikidetzeta-eskabidea egin eta haren onespena jasotzea.

6. artikulua.- 1. Alderdikidetzeta eskatu eta gauzatuko da eskatzailea bizi den lekuko Uri Erakundearen edo, hori izan ezean, herririk hurbilenekoan egingo da. Arrazoiak izanez gero, beste Uri Erakunde batean jaso liteke alderdikidetzeta, Uri Buru Batzar bien arteko akordio egokia aurretiaz burutuz gero. Alderdikidetzeta-eskabidea behar bezala bete eta izenpetu egingo da, eta alderdikidetzeta gutxienez bi urte daramaten beste alderdikide biren babesa beharko du; eta Uri Erakundeko alderdikideek jakin dezaten, agerian egongo da eskabidea hilabeteko epean. Era berean, Uri Buru Batzarrak eskabidearen kopia igorriko dio berari dagokion Herrialde Buru Batzarrari.

Egoitza aldatzen bada, alderdikideak aldaketaren berri emango du Uri Buru Batzarrean; honek, era berean, helbide berriaren arabera

eskumena duen Uri Buru Batzarrari bidaliko dio. Alderdikidearen Uri Erakunde berriak derrigor onartu beharko du bera, antzinasuna errespetatuz.

Salbuespenez, egoitza aldatzen duen alderdikideak lehenengo Uri Erakunde jarraitu ahal izango du, baldin eta Erakunde bien arteko aurre-akordioa badago.

2. Alderdikidetzat onartzeko edo ukatzeko, Uri Buru Batzarrak hartutako ebazpenak hiru hilabeteko gehienezko epearen barruan emango dira, eta eskatzaileari eta abal-emaile biei jakinaraziko zaie. Ebazpenik ez badago, ukatutzat joko da. Onarpen eta ukapen guztiak, azken hauen barruan isilekoak sartuta, Herrialde Buru Batzar eskudunari jakinaraziko zaizkio. Ukapenen kasuan, horien zio diren arrazoiak ere eman beharko dira.

3. Edozein alderdikidek Uri Batzarrera eraman dezake Uri Buru Batzarrak alderdikidetzat emateko edo ukatzeko hartutako erabakia. Uri Batzar honek bi hilabeteko gehienezko epean hartu beharko du ebazpena.

4. EAJ-PNV nahita utzi duten alderdikideek euren Uri Erakundearen bitartez bakarrik eskatu ahal izango dute Alderdian berriz sartzea, Alderdian baja benetan eman zuten egunetik bi urte igaro ondoren. Ondorio horietarako, ez da borondatezko bajatzat hartuko, alderdikidearen lanbidearekin edo lanpostuarekin zerikusia izan dezaketen legezko eskakizunengatik egiten dena. Egoitza aldatu badu, ezinbestekoa izango da berak baja eman zuen Uri Erakundearen txostena.

5. Uri Erakunde bat zatitzen bada, zatiketa horrek jotzen dituen alderdikideak erregistratuko dira ezarritako mugapearen arabera eurei dagokien Erakundearen, salbu eta, bidezko arrazoiengatik, Uri Buru Batzar biek elkarren adostasunez baimentzen badute horren aurkakoa.

7. artikulua.- 1. Alderdikidetzat-eskabidea Herrialde Buru Batzar bakoitzak ebatziko du ondoko kasu hauetan:

a) Eskatzaileak aurretik EAJ-PNVtik kanporatu dituztenean, edo, Alderdian baja emanda, horri kalte handiren bat egin diotenean. Kasu honetan, kanporatzearen edo bajaren egunetik hiru urte igaro behar izango dira, berriz sartzea eskatu ahal izateko.

Alderditik kanporatuak izan badira, Herrialde Buru Batzarrak Epaimahai zigortzaile eskudunari eskatuko dio zigor horren oinarri izan diren arrazoi guztien txosten osoa. Kasu bietan, eskatzailea lehen zegoen Uri Buru Batzarrari edo sartu nahi duen berriari, edo biei, eskatuko die idatzizko txosten bat Alderdian baja eman zuenetik zer-nolako jardun politikoa agertu duen erakutsiz.

b) Eskatzaileak beste alderdi bateko alderdikideak izan direnean, edota beste alderdi politiko baten eskutik hauteskundeetara aurkeztuak edo herri-kargu baten jarduteko aukeratuak izan direnean.

c) Uri Buru Batzarrak, berak apartekotzat jotzen dituen arrazoiak direla eta, txostena Herrialde Buru Batzarrari igortzen dionean.

d) Aurretik ere alderdikidetzat eskatu eta hori ukatu zitzaionean. Herrialde Buru Batzarrak entzun beharko du Uri Buru Batzarra, eskabidea ebatzi baino lehen.

2. Herrialde Buru Batzarraren ebazpenaren aurka, edozein alderdikidek aurkez diezaioke errekurtsua Herrialde Epaimahaiari.

8. artikulua.- Alderdikideen Aberri Erregistroa eta Akta Liburua kudeatzea Euzkadi Buru Batzarraren Idazkaritzaren ardurapean egongo da.

9. artikulua.- 1. Alderdikide bakoitzari bere Uri Buru Batzarrak ondoko hauek eskuratuko dizkio: alderdikidetzat-txartela, eta estatutu eta araudien ale bana, baita une horretan EAJ-PNVren proiektu politikoa finkatzen duten agirien bilduma ere.

2. Prestakuntza-ikastaroak emango dira, alderdikideek EAJ-PNVren planteamendu ideologikoak, egitaraua eta antolaketa jakingo dituztela bermatzeko.

10. artikulua.- Alderdikide guztiak dira berdinak eskubide eta eginbeharretan, estatutu hauek ezartzen dituzten mugen kalterik gabe.

11. artikulua.- Alderdikidearen eskubideak honako hauek dira:

1) Bere alderdikidetzaz egoki garatzeko beharrezko diren prestakuntza eta informazioa jasotzea.

2) EAJ-PNVren organo artez kariengandik informazioa jaso eta haien arreta eskatzea, horretarako jarritako antolaketa-bideen bitartez, Alderdiaren antolaketari eta jarduerari eragin diezaieketen arazo guztiei buruz.

3) Bere Udal Erakundearen Batzarretan sortzen diren eztabaida, hausnarketa eta bozketetan parte hartzea, hitz egiteko eta boto emateko erabateko askatasunarekin.

4) Aukeratzea eta aukeratua izan ahal izatea EAJ-PNVren Erakundeko edozein kargu, izendapen edo hautapenatarako.

5) Aukeratzea eta aukeratua izan ahal izatea herri-kargu baterako hautagaia.

6) EAJ-PNVren berme eta justizia organo eskudunetara jotzea.

7) EAJ-PNVren komunikabideetan bere iritziak askatasunez adieraztea. Iritzi horiek argitaratzen ez badira, interesatuak jasoko ditu beharrezko argibideak berari dagokion organotik.

12. artikulua.- 1. Alderdikidearen eskubideak oso-osorik eskuratuko dira, bai Alderdi barruko karguetarako hautagarria izateko, bai EAJ-PNVn sartzea eskatzen dutenak abalatu ahal izateko, alderdikidetzaren urte bi, gutxienez, igaro eta gero, lanbide edo lanpostuarekin loturiko legezko eskakizunen ondoriozko bajaren osteko altaren kasuetan izan ezik; kasu horietan altak dakar alderdikideari baja mota hori hartu zuen unean zegozkion eskubide guztiak berreskuratzea.

2. Alderdikidetzaren bi urteko antzinatasunaren eskakizuna ez da aplikatuko Uri Erakunde bateko karguetarako hautagaia izateko, sortu berri diren Erakundeak izan eta beste Uri Erakunde baten zatiketarik ez datozenean.

3. Buru Batzarrek kontratatzen dituzten langileei eskatuko zaie gutxienez bi urte alderdikidetzaren egotea; izan ere, langileok eskura izan ditzakete alderdikideen erregistroak, aktak, datu ekonomikoak edota Buru Batzarrek berak isilpekotzat hartzen duen dokumentazioa.

13. artikulua.- Alderdikidearen oinarrizko eginbeharrak honako hauek dira:

1) Aberri, Herrialde eta Uri mailetako Estatutuak, eta, era berean, horiek garatzen dituzten araudiak zaintzea.

2) EAJ-PNVren organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak bete, haren Erakundearen diziplina bete, eta haren helburuak lortzen laguntzea.

3) EAJ-PNVren proiektu politikoa, haren antolaketa eta barne-jardunbidea jakin eta zabaltzea.

4) EAJ-PNVren ekintza politikoa modu eraginkorrean parte hartzea.

5) Bere Uri Erakundearen Batzarretara eta EAJ-PNVk deitzen dituen ekitaldietara joatea.

6) EAJ-PNVk aurkezten dituen hautagaiei, edota hautagai izan ez eta EAJ-PNVk bermatzen ditueni botoa ematea.

7) EAJ-PNVren barruan onartu eta egikaritzea organo eskudunek agintzen dizkieten kargu, izendapen eta hautapenak, salbu eta organo horiek ontzat hartzen dituztenean karguok onartzea eragozten duten arrazoiak.

8) Nahitaezko kuotak ordaintzea, salbu eta Uri Buru Batzarrak ontzat hartzen dituenean hori eragozten duten arrazoiak.

9) Euskara ikasten, eta hitzez eta idatziz jakiten ahalegintzea, bai eta euskara erabili eta EAJ-PNVren barruan zein kanpoan bera zabal dadin laguntzea.

10) Alderditik kanpo, herri-kargu baterako hautatua izateko aukera EAJ-PNVren buru batzar eskudunari jakinaraztea eta haren baimenik gabe ez onartzea.

11) EAJ-PNVren Batzarretan edo beste organo batzuetan eztabaidatutakoa isilpean gordetzea.

14. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalean, baja izan daiteke borondatezkoa, derrigorrezkoa edo legezko eskakizunen ondoriozkoa.

a) Borondatezkoa agerikoa edo isilekoa izan daiteke. Agerikoa da interesatuak berak askatasunez adierazten duenean. Isilekoa da:

– Nahitaezko kuotak ez ordaintzeagatik denean, behin Uri Buru Batzarrak ordaintzeko egindako bigarren agindeia egin zuenetik hilabete igarota.

– Alderdikideren batek buru batzar eskudunak aurretiaz baimena eman gabe EAJ-PNVren izenean aukeratua irten zen udal taldea, batzarkide taldea edo legebiltzar taldea uzten duen kasuan.

– Alderdikideren batek, herri-hautapeneko karguren batean dagoenean, EAJ-PNVz besteko hautagaitza aurkezten badu edo hori aurkezten laguntzen badu, buru batzar eskudunak aurretiaz baimena eman gabe.

– Alderdikideren batek EAJ-PNVz besteko alderdi politiko batek izendatutako herri-kargua, konfiantzazkoa edo izendapeneko hartzen badu, buru batzar eskudunak aurretiaz baimena eman gabe.

b) Derrigorrezko baja epaile edo Epaimahai eskudunak erabakita gerta daiteke bakarrik, aldeztatik diziplinazko espedienteari hasiera emanik, eta honako arrazoiren batengatik:

1. Izen-ematea burutzeko unean bete behar diren datuetan nahita iruzur egiteagatik.

2. Ez betetzeagatik 5. artikuluan xedatutakoa.

3. EAJ-PNVren diziplinaren aurka doazen edo iritzi publikoaren aurrean haren irudiari kalte egin dioten adierazpen edo ekintza publikoak egiteagatik.

4. Jendaurrean EAJ-PNVren proiektu politikoaren aurka adierazpenak egiteagatik.

5. EAJ-PNVren organoek baliozkotasunez hartutako erabakien aurka, era antolatuan jarduteagatik, Alderdiaren beraren bideetatik kanpo eta herri-kargu batez edo Alderdi barruko kargu batez edota komunikabideez baliatuta.

6. Norberari alderdikide gisa dagozkion oinarrizko betebeharrak ez betetzeagatik, hots, 13. artikulukoak, salbu eta artikuluko horretako 4 eta 5. idatz-zatietakoak.

c) Legezko eskakizunek eragindako baja horrelakotzat hartuko du Uri Buru Batzarrak beren-beregi erabakita; horretarako, bajak ukitutako alderdikideak eskabidea egin beharko du aurretik; hori horrela izango da, alderdikide batek lanbide edo lanpostu bat eskuratu eta, arau juridikoren bat dela-bide, ogibide horretan jarduteko derrigorrezkoa denean alderdi politikoetako kidea ez izatea.

d) Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vascoren alderdikideek edo Organoek Alderdiaren Estatutu eta Araudien kontra

eginiko huts egiteak edo derrigorrek ez betetzeak Epaile eta Epaimahaiak honela kalifikatuko dituzte huts egin den derrigorren izaeraren arabera eta kaltetutako eskubidearen edo eragindako kaltearen arabera: oso larriak, larriak, ez hain larriak eta arinak.

Huts egiteengatik ezin izango da diziplina zigorrik jaso, Epaile edo Epaimahai eskudunak zentzu horretan emaniko epaitzaren bidez ez bada, eta dagokion espedientea ireki ondoren, diziplina prozeduraren arabera, EAJ-PNVren alderdikide batek edo horretarako eskubidea duen EAJ-PNVren barne erakunde batek proposatuta, kasuan kasuko beste erantzukizunei kalte egin gabe eta alderdikideak gertakarien berri jasotzeko eta zigorrak ezarri baino lehen entzuna izateko duen eskubidea bermatuta.

Huts egite berberengatik inola ere ezin izango da zigor nagusi bat baino gehiago ezarri.

e) Salbuespenez, Euzkadi Buru Batzarrak EAJ-PNVren izen onari ageriko kaltea ekarri dion delituengatik instrukzio fasean ikertua den alderdikidearen alderdikidetzak kautelaz etetea erabaki ahalko du, alderdikideari entzun ondoren. Alderdikidetzak kautelaz etetea automatikoa izango da ahozko epaiketa autoa ezartzen bada eta auziak ustelkeria kasuren batekin zerikusia baldin badu.

Erabaki irmo bidez kondenatuak izan diren alderdikideei alderditik kanporatzeko zigorra ezarri ahalko zaie, Euzkadi Buru Batzarrak Aberri Epaimahaiaren aurrean alderdikidea kanporatzeko hasiko duen espedientea dela bidez.

Epaia absoluziozkoa bada, alderdikidetzak etenda duen alderdikideari eskubide guztiak itzuliko zaizkio, eta behar bezala iragarriko da.

15. artikulua.- 13. artikuluko 4 eta 5. idatz-zatietan agertzen diren betebeharrak ez betetzeagatik, botoa emateko eskubidea, eta Alderdi barruko hautapeneko edozein kargutarako edo edozein herri-kargutarako hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea bakarrik etengo dira, Diziplinazko Araudian ezarritako denborarako eta haren arabera. Hala eta guztiz ere, Uri Buru Batzarrak kasu bakoitzaren inguruabarrak aztertuko ditu, aipaturiko betebeharrak ez-betetzea banan-banan zuzentzeko.

16. artikulua.- EAJ-PNVren buru batzarrek euren giza baliabideen plangintza egingo dute, eta alderdikideak prestatzeko eta sustatzeko politika garatuko dute.

17. artikulua.- EAJ-PNVren buru batzarrek bideak sortu eta indartuko dituzte, Alderdiaren alderdizaleekin komunikatzeko, eta haiekin harremanak izateko.

Horretarako, Uri Erakundeek EAJ-PNVren lokalen erabilera bultzatuko dute, batez ere, batzokiena; helburu horrekin, alderdikide ez direnek parte har dezaketen ekintzak antolatuko dira, eta alderdikide ez direnek parte hartuko duten talde edo elkarteen sorrera sustatuko dute.

II. TITULUA EAJ-PNVren ANTOLAKETA

I. kapitulua.- OINARRI NAGUSIAK

18. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalea ALDERDI BAKARRA da, eta ezaugarri hauek ditu:

a) Batzar-eraketa duen alderdia da, eta bere alderdikideen benetako partaidetza errazten du alderdi politiko gisa dagozkion erabakiak hartzean eta eginkizunen egikaritzan.

b) Uri eta herrialde mailetako erakundeei dagozkien erabakiak hartzeko eskumenen eremua zaintzea bermatzen du une oro.

c) Botere eta eginkizunen bereizketatik hasita egituratzen ditu Alderdiaren barruko organoak.

d) Bere buru batzarrak kide anitzeko organo gisa egituratzen ditu.

e) Alderdi barruko karguak eta Alderditik kanpoko karguak bereizteko oinarriak onartzen ditu, boterea meta ez dadin, eta kontrolatzailea eta kontrolatua nahastu ez daitezen.

f) Alderdi barruko kargudun bat edo herri-kargudun bat hautatzeko organo eskudunek, era berean, edozein unetan, hautapen hori ezeztatze ahalmena dutela onartzen du.

18 bis. artikulua.- Alderdiaren organo elkartuak organo bakoitzeko presidentearen dei bidez batzartuko dira eta deialdia gutxienez ohiko edo ezohiko bilera egunerako ezarritako eguna baino 3 egun lehenago egin behar da, kasuan kasuko premiarekin eta beren erabakiz edo kide guztien lauren batek arrazoi batekin eta bileraren helburuak adierazita eskatzen badute. Honek guztiak ez dio kalterik egingo organo horren Araudiak berezko ezartzen duen epeari, izan ere epe hori izango da aplikagarri.

Jakinarazpenak idatziz egingo dira eta bilerarako lekua, eguna eta ordua adieraziko dira, era berean jakinaraziko dira eguneko gai zerrendako gaiak eta espresuki esango da deialdiak zein barne organok egiten duen.

Gutxienez kideen erdiak egongo dira batzarrean, premia kasuetan izan ezik. Kasu hauetan presidenteak bilera quorum txikiagoarekin deitzeko arrazoiak azalduko ditu eta proposamena bozketara eramango du.

Eguneko gai zerrendak Presidenteak erabakiko dituen gaiak jasoko ditu eta, horiekin batera, deialdia bidali baino lehenago, gutxienez kideen lauren batek deialdia eskatzeko planteatu duten puntua ere bai.

Organo elkartuaren baitan sortuko diren eztabaidak Presidenteak gidatuko ditu. Eguneko gai zerrendako gai bakoitza aurkeztu ondoren, hitz egiteko txandak emango dira eta Presidenteak hitza emango die eskatu duten kideei eta, beharrezko jotzen bada, erantzuna emateko txanda eskaini ahalko da.

Organo elkartuen akordioak, bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira, Estatutuek gehiengo osoa eskatzen duten kasuetan salbu.

II. kapitulua.-
URIETAKO, HERRIALDEETAKO ETA ABERRIKO ERAKUNDEAK

Lehenengo atala:
Uri Erakundeak

19. artikulua.- 1. Uri Erakunde bat eratzeko edo desegiteko eskumena Herrialde Buru Batzarrari dagokio. Uri Erakunde bat eratzeko beharrezkoa izango da berari dagokion Herrialde Estatutuak zehaztutako alderdikideen kopurua egotea udal mugartean edo mugapean.

2. Egoera geografikoak edo alderdikideen kopuruak arrazoituta, Uri Erakunde bat behar hainbat Erakundetan bana daiteke, ondoko kasu hauetan:

a) Eratu behar den Uri Erakundearen mugartean edo mugapean helbideratuta dauden alderdikideen ehuneko 50ek baino gehiagok eskatuz gero, eta Herrialde Buru Batzar eskudunak baimena emanda, lehengo Uri Erakundeari entzun eta gero.

b) Herrialde Buru Batzarrak proposatu eta eratu behar den Uri Erakundearen mugartean edo mugapean helbideratuta dauden alderdikideen ehuneko 50en baino gehiagoren adostasunarekin, lehengo Uri Erakundeari entzun eta gero.

Uri Erakunde bat zatitzen denetan, batzorde bat sortuko da; batzorde hori osatuko dute ekimenaren proposatzaileen ordezkariak, bereizketaren jatorriko Erakundearen ordezkariak eta Herrialde Buru Batzarraren ordezkariak; eta haren helburua izango da, besteak beste, lurralde-mugapea eta ondarea zehaztea, Uri Erakunde berria eratu baino lehen.

3. Uri Erakunde bik edo gehiagok bat egin ahal izan dezaten, beharrezkoa izango da Uri Erakundeatarik bakoitzeko kideen ehuneko 50ek baino gehiagoak hala onartzea, eta Herrialde Buru Batzarraren baimen egokia jasotzea.

20. artikulua.- Uri Erakunde bakoitzak bere Uri Estatutuen arabera egingo du barne-antolaketa, betiere estatutu hauetan eta hari dagokion Herrialde Erakundekoetan xedatutakoa kontuan harturik.

Buru Batzarren Artekoa

21. artikulua.- 1. Herrialde Buru Batzar eskudunak, Uri Erakundeen gehiengoak hala eskatzen badu, Buru Batzarren Artekoa eratzea erabaki ahal izango du.

2. Buru Batzarren Artekoa gutxienez osatuko dute Uri Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren Uri Buru Batzarreko lehendakariak edo horiek izendatutako pertsonak eta Herrialde Buru Batzar eskuduneko kide bik.

Uri Buru Batzarreko lehendakariak edo honen eskuordeak Buru Batzarren Artekoaren inguruko zuri-bidea eskainiko du bere Uri Batzarrean.

3. Buru Batzarren Artekoa organo funtzionala da, eta ardura dauka Euzko Alderdi Jeltzalearen ekintza politikoa batu, bultzatu eta kontrolatzeko, betiere bere sorrera eragin zuten eginkizun eta xedeetarako, eta bere jarduketa-eremuaren barruan.

4. Herrialde Buru Batzarrek Buru Batzarren Artekoa eratzeko hartuko duen erabakian ezarriko da Jardunbiderako Barne Araudia, tartean dauden Erakundeei entzun eta gero; eta araudian agertuko dira xedeak, eginkizun zehatzak eta erabakiak hartzeko modua, bai eta jarduketa-eremua ere.

5. Uri Buru Batzarretako Lehendakarien edo haien eskuordeen eta Herrialde Buru Batzarren kideen arteko ezadostasuna badago, horietako edonork gaia Herrialde Batzarrerera eraman ahal izango du, eta auzia bertan erabakiko da.

Bigarren atala: Herrialde Erakundeak

22. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalearen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroako Herrialde Erakundeak eurei dagozkien Herrialdeetako Uri Erakundeak osatuko dituzte.

23. artikulua.- Herrialde Erakunde bakoitzak Herrialde Estatutuen arabera atonduko du bere barne-antolaketa, betiere oraingo estatutu hauek xedatzen dutena zainduz.

Hirugarren atala:
Aberri Erakundea

24. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzalearen Aberri Erakundeak bere alderdikide guztiak hartzen ditu, baita Uri Erakundeak eta Herrialde Erakundeak ere. Euzkadiz Kanpoko Erakundeek ere Aberri Erakundea osatzen dute.

III. kapitulua.-
EUKADIZ KANPOKO ERAKUNDEAK

25. artikulua.- Euzkadiko lurraldetik kanpo sortzen diren Erakundeak, baita horietan sartzen diren alderdikideak ere, Euzkadi Buru Batzarraren gidalero orokorreari loturik egongo dira; izan ere, horrek eskuordetza bereziak zein iraunkorrak bidali ahal izango ditu, eta beharrezko deritzen beste jarduketa egitea erabaki dezake, Euzkaditik kanpo EAJ-PNVren ekintza politikoa garatzeko.

26. artikulua.- Euzkadiz kanpoko Erakundeek aberri-lurraldean dauden Uri Erakundeek bezala funtzionatuko dute, eskubide eta eginbehar berberekin, Aberri Estatutuetan xedatutakoaren kalterik gabe, eta bakoitzak bere estatutuen arabera antolatuko du bere burua barne mailan. Beraren eremuak edo jurisdikzioak eurak kokatuta dauden Herrialdearen mugak hartuko ditu, 29. artikuluan xedatutakoaren kontra jo gabe.

27. artikulua.- EAJ-PNVren aberri mailako organo zuzendarien jurisdikzioa alderdikide guztiengana hedatzen da, haien lurralde egoera edozein dela ere, baita euren ohiko bizilekua Euskal Herritik kanpo dutenengana ere.

28. artikulua.- 1. Euzkadiz kanpoko Erakunde bakoitza Aberri Batzarrean egongo da bere ordezkarien bitartez, botoa emateko eskubidea

duela, Aberri Batzarrak berak ohiko bilkuran eta urte osorako hala erabakitzen duenean, eta honako baldintza hauek egiaztatu ondoren:

- a) gutxieneko ekintza politiko eta iraunkorra garatzea;
- b) bere barne-organoak eratuak edukitzea: Batzarra, Buru Batzarra eta Epaimahaia;
- c) gutxienez 25 alderdikide izatea;
- d) bere kuoten ordainketa normaltasunez kudeatzea.

2. Euzkadiz kanpoko Erakundearen ordezkari bati, bertako alderdikidea izanik, Aberri Batzarrera azaltzea ezinezkoa zaionean, azken horrek aberri-lurraldeko Uri Erakunde bateko edo Euzkadiz kanpoko Erakunde bateko alderdikide bati eman diezaioke bere ordezkaritza.

3. Era berean, Aberri Batzarrak erabaki ahal izango du aurreko baldintzak betetzen ez dituzten Euzkadiz kanpoko Erakundeak ere bilkuretara azaltzea, hitz egiteko eskubideaz bakarrik.

29. artikulua.- Alderdikideen kopuruagatik hala behar duten herrialdeetan, Aberri Batzarrak egoki deritzen adina Euzkadiz kanpoko Erakunde eratu ahal izango du, betiere interesatuek hala eskatuz gero, eta beren Batzarraren erabakia kontuan hartu ondoren.

30. artikulua.- Euzkadiz kanpoko Erakundeek eta euren alderdikideek haien jarduketa-eremuan dauden Euskal Elkarte, Etxe eta Klubetan modu eraginkorrean parte hartu, eta EAJ-PNVren ekintza politikoan lagunduko dute.

IV. kapitulua.- EUZKO GAZTEDI

31. artikulua.- 1. Euzko Gaztedi (EGI) EAJ-PNVren gazte erakundea da.
2. EAJ-PNVk gazteriarentzat egiten duen politikaren diseinugintzan EGIk hartuko du parte, eta buru batzar eskudunek horretarako beharrezko jotzen dituzten bideak egokituko dituzte.

3. EGIk antolaketarako autonomia izango du, bere estatutu eta araudien arabera, betiere EAJ-PNVren antolaketa irizpideak betez.

4. EGiren txosten, ebazpen eta jarduketek bat etorri behar dute EAJ-PNVren ideologiarekin eta politika orokorrarekin.

III. TITULUA BATZARRAK

I. kapitulua.- URI BATZARRAK

32. artikulua.- Uri Batzarra da Uri Erakundearen organo nagusia.

Uri Batzarra Uri Erakundeko alderdikideek osatzen dute, haiek bildurik daudela estatutuetan eta araudietan ezarritako betekizunen arabera.

33. artikulua.- Uri Batzarrari ondoko hau dagokio:

a) Bere udal-mugaratean EAJ-PNVren politika zuzentzea, betiere, goragoko organoek hartutako erabaki eta gidalerroak betez.

b) Uri Estatutuen onespeneren bitartez, EAJ-PNVren maila honetako antolaketa eta jardunbide-araubidea finkatzea.

c) Aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak onartzea eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartzea, Buru Batzarrak proposatuta eta ekitaldiko lehen hilabetean.

d) Uri Buru Batzarra eta Uri Epaile edo Epaimahaia aukeratzea.

e) Berari dagokion Herrialde Batzarrerako ahaldunak eta Batzar Nagusirako ordezkariak aukeratzea, hartutako erabakiak haiek betetzen dituztela kontrolatu eta horiei, behar izanez gero, erantzukizunak eskatzea.

f) Herrialde Batzarrean eta Batzar Nagusian, Uri Erakundearen izenean aurkez litezkeen proposamenak onestea.

g) Alkategai eta zinegotzigiak aukeratzea, 80. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera.

h) Uri Buru Batzarraren jarduketa politikoa zuzendu, eta haren bidez Buru Batzarren Artekoaren kideak, Buru Batzarren Arteko hori badago, haren kudeaketa eta hartutako erabakiak bete daitezzen kontrolatu, eta, behar izanez gero, haien karguaren egikaritzagatik erantzukizuna eskatzea.

i) Udal eremuko herri-kargudunen jarduketa politikoa zuzendu, eta, behar izanez gero, erantzukizun politikoa eskatzea.

j) Alderdi barruko uri kargudunek eta udalerriko herri-karguetan diharduten alderdikideek aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

k) Herrialde edota aberri eremuko Alderdi barruko karguetarako, eta herrialde, aberriko eta aberriz kanpoko herri-karguetarako hautagaiak proposatzea, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

l) Uri Erakundeko alderdikideen artean urtero kontu-aztertzaileak aukeratzea, gehien jota 3 izango dira.

34. artikulua.- Uri Batzarraren Araudiak, edo, hori izan ezean, Uri Erakundearen estatutuek, antolaketa eta barne-jardunbidearen aspektu guztiak araupetuko dituzte, betiere, goragoko estatutueta eta araudietan xedatutakoa betez.

II. kapitulua.- HERRIALDE-BATZARRAK

35. artikulua.- 1. Herrialde Batzarra da Herrialde Erakundearen organo nagusia, eta ondoko hauek osatzen dute:

a) Uri Batzarretan aukeratutako ahaldunek, proportziozko ordezkaritza arindu eta mugatuzko sistema baten arabera.

b) Herrialde Buru Batzarrak, Herrialde Buru Batzar Aholkulariak eta Herrialde Epaimahaiak.

c) Herrialde Erakundeetako alderdikideak diren Euzkadi Buru Batzarreko eta Aberri Epaimahaiko kideek.

d) Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak.

e) Aberri Batzarrean Herrialde Erakundeak dituen ordezkariak.

f) Herrialde erakundeetan herri-hautapeneko herri-kargudun alderdikideak eta, aurretiaz deituak izan baldin badira, Erakundeotan izendapenekoak diren kargudunak.

g) Udaletako herri-kargudunen ordezkariak batek, edo beste alderdikide batzuek, Herrialde Batzarraren Araudiak xedatutakoaren arabera.

h) Euzko Gaztediren Herrialde Buru Batzarraren ordezkariak.

i) Herrialde idazkaritzako arduradun teknikoak, horiek badaude.

2. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango

dute a) idatz-zatiko kideak bakarrik. Herrialde Batzarreko gainerako alderdikideak hitz egiteko eskubidea izango dute soilik.

36. artikulua.- Herrialde Batzarrari ondoko hau dagokio:

a) Bere Herrialdean EAJ-PNVren politika zuzentzea.

b) Uri Erakunde biri edo gehiagori dagokien gutzia.

c) Herrialde Estatutuen onespeneraren bitartez, Herrialde Erakundearen antolaketa eta jardunbide-araubidea finkatzea.

d) Aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak onartzea eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartzea, Herrialde Buru Batzarrak proposatuta eta ekitaldiko lehen bi hilabeteen barruan, eta kontuak eta aurrekontua Euzkadi Buru Batzarrari bidaltzea.

e) Herrialde Buru Batzarreko kideak eta haren burua, Herrialde Epaimahaiko kideak, baita Aberri Batzarreko ordezkariak ere aukeratzea.

f) Bere Herrialdeko Ganbera Legegilerako hautagaiak aukeratzea, bai eta Ganbera horretako eta organo betearazle eskuduneko lehendakariako hautagaiak ere, Herrialde Buru Batzarrak proposamena egin eta gero.

g) Herrialde Erakundearen proposamena egitea ondoko hautagaien begira, Batzar bakoitzak aukera ditzan: Euzkadi Buru Batzarreko kideak eta Lehendakaria, Aberri Epaimahaiko kideak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak, eta aberriko eta aberrikanpoko herri-kargudunak.

h) Herrialde Buru Batzarraren jarduketa politikoa zuzendu, beraren kudeaketa eta hartutako erabakiak bete daitezzen kontrolatu, eta, behar izanez gero, bere karguaren egikaritzagatik erantzukizuna eskatzea.

i) Hartutako erabakiak bete daitezzen kontrolatu eta, behar izanez gero, Aberri Batzarrean berak dituen ordezkariak erantzukizuna eskatzea.

j) Herrialde eremuko herri-kargudunen jarduketara politikoa zuzendu eta, behar izanez gero, erantzukizun politikoa eskatzea.

k) EAJ-PNVren herrialde organoak eta herrialdeko herri-karguetan diharduten alderdikideek aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

l) Herrialde Buru Batzarrak proposatuta, udalerraren maila gaitzen duten plan, proiektu edota ekimenak herrialdearentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena onestea.

m) Herrialde Batzarraren izenean, Aberri Batzarrean eta Batzar Nagusian aurkez litezkeen proposamenak onestea.

n) Uri Erakunde baten edo gehiagoren eta Herrialde Buru Batzarraren artean sor daitezkeen iritzi-ezberdintasunak ebaztea.

o) Buru Batzarren Artekoan izan daitezkeen gatazkak ebaztea, estatutu hauetako 80. artikuluan xedatutakoa betez.

p) Urtero bi kontu-aztertzaile eta bi ordezko aukeratzea, eta hauek dagokion Herrialde Buru Batzarrak aurkeztutako urteko kontuen egokitasunaz eta barne kontrolerako sistemaz informatuko dute. Egingo duten txosten hau Herrialde Buru Batzarraren proposamenez onartzeko aurkeztuko diren urteko kontuekin batera aurkeztuko da.

37. artikulua.- Herrialde Batzarraren Araudiak antolaketa eta barne-jardunbidearen aspektu guztiak araupetuko ditu, betiere, goragoko estatutuaren eta araudietan xedatutakoa betez.

Edozein kasutan, Ohiko Herrialde Batzarra Ohiko Aberri Batzarra baino lehenago egin beharko da.

III. kapitulua.- ABERRI BATZARRA

38. artikulua.- 1. Aberri Batzarra da Aberri Erakundearen organo nagusia, eta ondoko hauek osatzen dute:

a) Herrialde Erakundeetako eta Euzkadiz kanpoko Erakundeetako ordezkariak, ondoko irizpide hauen arabera:

- 15 ordezkari Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Herrialde Erakundeetarik bakoitzeko, zenbat alderdikide dituen kontuan hartu gabe;

- 5 ordezkari Iparraldeko Herrialde Erakundetik;

- 30 ordezkari, Herrialde Erakundeen artean banaturik, alderdikideen kopuruaren heinean. Sistema hau lau urtetik behin berrikusiko da;

- Euzkadiz kanpoko Erakundeek, behar den moduan eratuak izan eta, estatutuok zehaztutako baldintzen arabera, Euzko Alderdi Jeltzalearen Erakunde legez gutxieneko jarduera burutzen badute, boto bat izango dute Uri Erakunde bakoitzeko, baina ezin izango dute guztiek batera 5 bototik gora izan Aberri Batzarrean.

b) Euzkadi Buru Batzarrak.

c) Herrialde Buru Batzarrek.

d) Aberri Epaimahaiak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak.

e) Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta sailburuek, eta Aberri eta Euzkadiz kanpoko Erakundeetan herri-hautapenekoak diren herri-kargudun EAJ-PNVren alderdikideek.

f) Udal eta herrialde eremuetako herri-kargudunen ordezkariak batek, Aberri Batzarraren Araudiak xedatutakoaren arabera.

g) Euzko Gaztediren Aberri Kontseiluak.

h) Euzkadi Buru Batzarrak edo Aberri Batzarrak deitutako alderdikideek, bai norbera legez, bai alderdikide batzuen taldeen ordezkari legez.

2. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute 1.a) idatz-zatian aipatutako kideek. Aberri Batzarreko gainerako kideek hitz egiteko eskubidea izango dute soilik.

3. Herrialde Erakunde bakoitzak ordezkari legez izango du, gehienez, 1.a) idatz-zatian aipatutako ordezkarien herena. Euzkadiz kanpoko Erakundeetarik bakoitzak ordezkari bat izendatu ahal izango du.

39. artikulua.- Aberri Batzarraren Mahaia urtebeteko epealdirako aukeratuko da, beraren izendapena ezeza daitekeelarik, eta Batzarraren Araudiak politikaz kanpo eratzikitzen dizkion eginkizunak egikaritzeko ditu.

40. artikulua.- 1. Aberri Batzarrari ondoko hau dagokio:

- a) EAJ-PNVren zuzendaritza politiko nagusia.
- b) Herrialde biri edo gehiagori dagokien guztia.
- c) Aberri Estatutuen aldarazpena onestea; hala eginez gero, Batzar Nagusiak berronetsi beharko du aldarazpen hori.
- d) Batzar Nagusiaren Araudiaren, Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen Araudiaren, Diziplinazko Araudiaren, eta Hauteskundeei buruzko Araudiaren aldarazpena onestea.
- e) Aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak onartzea eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartzea, Euzkadi Buru Batzarraren proposamenez eta ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan.
- f) Aberri Epaimahaia, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordea hautatzea.
- g) Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, aberriko edota aberri kanpoko herri-karguetarako hautagaiak aukeratzea: Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Akitania Erregioko Kontseilu Erregionalerako hautagaiak, espainiar estatuko Gorte Nagusietarako eta frantziar estatuko Parlamenturako hautagaiak, eta Europar Parlamenturako hautagaiak.
- h) Euzkadi Buru Batzarraren jarduketa politikoa zuzendu, beraren kudeaketa eta hartutako erabakiak bete daitezzen kontrolatu, eta, behar izanez gero, bere karguaren egikaritzagatik erantzukizuna eskatzea.
- i) Aberriko edota aberri kanpoko herri-karguak egikaritzen dituzten alderdikide guztien ekintza politikoa zuzendu, eta, behar izanez gero, erantzukizun politikoa eskatzea.
- j) Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, herrialdearen maila gainditzen duten plan, proiektu edota ekimenak interes estrategikokoak direlako adierazpena onestea.
- k) Herrialde Erakundearen artean, edo horien eta Euzkadi Buru Batzarraren artean sor daitezkeen iritzi-ezberdintasunak ebaztea.
- l) Estatutu hauetan ezarri ez diren aberriko edota aberri kanpoko arazoak ebaztea.
- m) Aberriko edota aberri kanpoko erakundeengan eragina daukaten koalizioak, itunak, legegintzaldietarako akordioak eta gainerako akordio egonkorak onestea.

n) Euzkadi Buru Batzarrak eta Herrialdeetako edozein Buru Batzarrek edota Batzarrak egiten dituzten proposamenak jakin eta, hala badagokio, onestea.

o) Urtero Kontu-Aztertzaileen Batzordea aukeratzea eta batzorde hau osatzeko aukeratuko dira Herrialde Erakunde bakoitzeko ordezkari bana.

Batzordea ohiko bileran batzartuko da gutxienez hiruhileko natural bakoitza amaitutakoan eta aurkeztu diren kontuen egokitasunaz eta erakundearen barruko kontrolerako ezarritako sistemaz informatuko du.

Txostenean ezarritakoa derrigor bete beharrekoa izango da eta Euzkadi Buru Batzarraren proposamenez onartzeko aurkeztuko diren urteko kontuekin batera aurkeztuko da.

2. Era berean, Aberri Batzarreko ordezkariak hautatuko dituzte Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria eta Euzkadi Buru Batzarreko zortzi burukideak Batzar Nagusiaren baitan, araubidez ezarritako prozedura betez.

Edonolako kausa dela eta, Batzar Nagusiaren barruan aukeratutako Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak edo 8 burukideetako edozeinek kargua uzten badu, burukide berria Aberri Batzarrak aukeratuko du, eta bere karguan iraungo du hurrengo Batzar Nagusia egin arte.

41. artikulua.- 1. Aberri Batzarra ohiko bilkuran bilduko da, urtean behin, nahitaez eta ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan, honako helburu hauekin:

a) EAJ-PNVren aberri-organoek eta, 40.1 artikuluko g) idatz-zatiari dagokionez, herri-karguetan diharduten alderdikideek aurkeztutako urteko txostena aztertzea, bera onesteko edo, bestela, ezesteko.

b) EAJ-PNVren estrategia politikoa finkatzea, urtebeteko hurrengo epealdirako.

c) Urteko aurrekontuak eta kontuak onestea, Kontu-Aztertzaileen Batzordeak eginiko txostenarekin batera aurkeztu beharko direnak.

d) Herrialdeetako edozein Buru Batzarrek edota Batzarrak egiten dituzten proposamenak jakitea.

2. Aberri Batzarrak lau urtetik behin hautatuko ditu aberri eremuko Alderdi barruko karguak. Aberri Epaimahaiko kideen, eta

Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideen aukeraketa Euzkadi Buru Batzarraren eta Aberri Batzarraren berriztatzearen ondorengo bi urteetara egin beharko da.

42. artikulua.- 1. Aberri Batzarra ezohiko bilkuran bilduko da, urteko edozein egunetan, deialdia egiten bada:

- a) Aberri Batzarrak berak erabakita.
- b) Euzkadi Buru Batzarraren ekimenez.
- c) Bi Herrialde Buru Batzarrek proposatuta.
- d) 15 ordezkari edo Herrialde Erakunde bateko ordezkari guztiek eskatuta.

e) EAJ-PNVren Uri Erakundeen edo alderdikideen ehuneko 15ek izenpetutako eskari batez.

2. Aberri Batzarra egingo da, deialdi-eskaria Batzarraren Mahaiari aurkezten zaion egunaren ondorengo 30 egunen barruan.

3. Epealdi horren lehenengo hamabost egunen barruan egiten ez bada deialdia, eskatzaileek Aberri Epaimahaiari jar diezaiokete errekurtsioa, eta honek Batzarrerako deialdia egingo du, errekurtsioa aurkezten den egunetik zenbatu beharreko hogeitau eguneko epealdiaren barruan egiteko Batzarra.

43. artikulua.- 1. Batzarrak, Ohikoak nahiz Ezohikoak, gutxienez 15 egun aurretik deitu beharko ditu Aberri Batzarraren Mahaiak.

2. Hala eta guztiz ere, Aberri Batzarraren Mahaiak edo Euzkadi Buru Batzarrak premia eta larritasun handiko egoera dagoela uste badute, Ezohiko Aberri Batzarrerako deialdia egingo da, adierazitako epeei kasurik egin gabe. Premiazko egoera hori Batzarrak berronetsi beharko du.

3. Ohiko Aberri Batzarra deitzen ez bada, bera otsailaren azkeneko igandean bilduko da beste barik, aurreko Aberri Batzarra egin zen leku eta ordu beretan.

44. artikulua.- 1. Aberri Batzarrak bertan dauden kideen gehiengo soilaren bitartez hartuko ditu erabakiak.

2. Hala eta guztiz ere, bozkatzeko eskubidea duten bertako ordezkariak emandako botoen gehiengo osoa behar izango da ondoko hauetarako:

a) Alderdi barruko kargudunak, eta herri-karguetarako hautagaiak aukeratzeko;

b) Estatutu hauetako 41.1 a) eta c) artikulua aipatzen dituen urteko txostenak onesteko;

c) EAJ-PNVren Aberri Estatutuak onetsi eta aldarazteko;

d) Aberriko edota aberriz kanpoko erakundeengan eragina daukaten koalizioak, itunak, legegintzaldietarako akordioak eta gainerako akordio egonkorak onesteko.

45. artikulua.- 1. Aberri Batzarrari dagokio bere araudia onestea; izan ere, araudi horrek haren barne-antolaketa eta jardunbide-araubidea zehaztuko ditu.

2. Aberri Batzarrak hartutako erabakien aktak Herrialde Buru Batzarretara bidaliko dira hiru egun balioduneko epean, horiek, era berean, haiek Uri Erakundeetara berehala igor ditzaten, baita ere Euzkadiz kanpoko Erakundeetara eta EGIren Aberri Kontseilura.

46. artikulua.- Herrialde Erakundeek bide egokiak jarriko dituzte, Herrialde Buru Batzarrek eta Aberri Batzarreko ordezkariak alderdikideei ahalik eta arinen eman diezaieten Aberri Batzarrean aztertutakoaren berri. Euzkadiz kanpoko Erakundeek bide berdintsuak ezarriko dituzte.

IV. kapitulua.- BATZAR NAGUSIA

47. artikulua.- Batzar Nagusia ohiko deialdiaz lau urtetik behin eratzen da; horren aurretik EAJ-PNVn eztabaida egingo da, honako helburu hauekin:

a) EAJ-PNVk epealdi horretan izan duen jarduketa politikoaren azterketa egitea.

b) Haren proiektu politikoa birbaieztatzea edo eraberritzea, ebazpenak edota agiri ideologiko eta programatikoak behin eta betiko onetsiz.

c) EAJ-PNVren barne-antolaketa aztertu eta, hala behar izanez gero, estatutuak aldarazteko Aberri Batzarrak aurretiaz onetsitako erabakia Batzar Nagusiaren gehiengo osoaren bidez berroneste.

d) EAJ-PNVren alderdikideek edota organoek, estatutuetako eta araudietako bidez, aurkeztutako ebazpen-proposamenak eztabaidatu eta erabakitzea.

e) Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria eta Euzkadi Buru Batzarreko zortzi burukideak aukeratzea, 40.2 artikuluaaren arabera.

48. artikulua.- Batzar Nagusia ondoko hauek osatuko dute:

a) Batzar Nagusirako beren-beregi hautaturiko Uri Erakundeen ordezkariak; horiek EAJ-PNV osorako sistema bakar batez aukeratuko dira, hau da, proportziosko ordezkariak arindu eta mugatuaz:

- 100 alderdikide arteraino..... ordezkari 1
- 101 alderdikidetik 350era..... 2 ordezkari
- 351 alderdikidetik 700era..... 3 ordezkari
- 701 alderdikidetik 1.150era..... 4 ordezkari
- 1.150 alderdikidetik gora..... 5 ordezkari

b) Euzkadiz kanpoko Erakundeen ordezkariak, a) puntuan adierazitako baldintzen eta sistemaren arabera aukeratuta.

c) Aberri Batzarreko ordezkariak.

d) Aberri Batzarreko gainerako kideak.

e) Herrialde eta udal mailetakoko herri-karguak egikaritzen dituzten alderdikideen ordezkariak batek, Batzar Nagusiaren Araudiak xedatutakoaren arabera.

f) Euzko Gaztediren ordezkariak.

g) Euzkadi Buru Batzarrak gonbidatutakoak, bai norbera legez, bai talde baten ordezkari legez.

Batzar Nagusian hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute a), b) eta c) idatz-zatietan aipatzen direnek bakarrik. Gainerako kideak hitz egiteko eskubidea izango dute soilik.

49. artikulua.- Aberri Batzarrak edo Euzkadi Buru Batzarrak egingo du deialdia Batzar Nagusirako. Aberri Batzarrak onetsiko du Batzar Nagusiaren Araudia, eta, beste gai batzuen artean, ezarriko ditu haren kideen kopurua eta horiek hautatzeko sistema, bai eta haren jardunbide-araubidea ere.

IV. TITULUA ALDERDIKIDEEI IRITZIA ESKATZEA

50. artikulua.- Uri Erakundeek nahitaez deitu eta egin beharko dituzte Uri Batzarrak, estatutuen arabera, Batzar Nagusiaren aztergaien zerrendako proposamenak eztabaidatzeko eta, hala behar izanez gero, onesteko.

51. artikulua.- 1. Aberri Batzarrean erabakiak hartzeko, alderdikideei iritzia eskatu beharko zaie, nahitaez:

a) Alderdi barruko kargudunak eta herri-karguetarako hautagaiak aukeratzean, estatutu hauetan eta estatutuok garatuko dituzten hauteskunderi buruzko araudiek ezarritako prozeduraren arabera;

b) Aberri Estatutuak aldaraztean;

c) Batzar Nagusiaren Araudia, Diziplinazko Araudia, Aberri Berme eta Zaingo Batzordearen Araudia, eta Hauteskunderi buruzko Araudia aldaraztean;

d) Euzkadi Buru Batzarreko kideentzat bateraezintasuna kentzea planteatzen denean;

e) Aberri Batzarra osatzen duten kideen herenak edo Euzkadi Buru Batzarrak hala erabakitzen duenean;

f) Herrialde Erakunde bik edo Uri Erakundeen ehuneko 15ek hala eskatzen dutenean.

2. Uri Erakundeek Herrialde Batzarretan dituzten ahaldunek eta Herrialde Erakundeek Aberri Batzarretan dituzten ordezkariak ezin izango dute botorik eman Herrialde Batzarretan eta Aberri

Batzarrean, hurrenez hurren, aurretiaz ez bada Urietako eta Herrialdeetako Batzar eskudunetan eskuartearen darabilten gaiaz erabakirik hartu.

52. artikulua.- 51. artikuluko a) eta d) idatz-zatietan aipatu dira alderdikideei iritzia eskatzeko prozesuak; bada, prozesu horietan aginduzko manamendua dagoela ulertuko da. Horri dagokionez, aginduzko manamendutzat joko da Batzar eskudunetan lehen bozketan agertzen den borondatea bere horretan ematea. Hala eta guztiz ere, Batzar eskudunek beren-beregi eman diezaiekete baimena euren ordezkariak, osotasunean edo zati baten, jarrera ezberdinak babesteko, hautaketak ematen dituen aukeren esparruaren barruan.

53. artikulua.- Erabakiak hartzerakoan, 51. artikuluko b), c), e) eta f) idatz-zatiek aipatzen dituzten gaietan, Urietako eta Herrialdeetako Batzarren erabakiek derrigortuko dituzte ahalduak eta ordezkariak, izaera loteslearekin, euren jasotako irizpidetik hurbilen dauden jarreraren alde egiteko, eztabaidak ematen dituen aukeren esparruaren barruan.

54. artikulua.- 51. artikuluko balizkoetatik at, berak egoki jotzen duen jarrera hartu ahal izango du, eta Batzar eskudunetan zuri bide egokia egin beharko du, betiere, beraren kargutik enkaitu ahal izango da.

V. TITULUA BURU BATZARRAK

I. kapituluak.- URI BURU BATZARRAK

55. artikulua.- URI BURU BATZARRAK dira EAJ-PNVren Uri Erakunde bakoitzaren organo betearazleak.

56. artikulua.- Uri Estatutuek zehaztu edo, horiek izan ezean, Uri Batzarrak erabakitzen duen beste kidek osatuko dituzte Uri Buru Batzarrak; betiere, ezin izango dute inoiz hiru baino gutxiago izan, hots, lehendakari, idazkari eta diruzain legez jardungo dutenak.

57. artikulua.- Uri Batzarrek bi urtetik behin hautatuko dituzte Uri Buru Batzarretako burukideak urtearen lehenengo lauhilekoan, Aberri Estatutu hauetako VIII. tituluaren xedatutakoaren arabera.

58. artikulua.- Uri Buru Batzarrari ondoko hau dagokio:

a) Uri Batzarraren erabakiak betearaztea, eta, eskuordetzeaz, Herrialde Buru Batzarraren erabakiak ere.

b) Uri Batzarra batzartuta ez dagoenean, Uri Erakunde bakoitzaren eremuan EAJ-PNVren zuzendaritza politikoa egikaritzea, bere Batzarrari guztiaren berri emanez eta Herrialde Buru Batzarrak edota Euzkadi Buru Batzarrak euren eskumenen eremuan hartutako erabakiak errespetatuz.

c) Jarduteko urteko egitaraua Uri Batzarrari aurkeztea.

d) Gobernu akordioak eta izaera egonkorreko itunak onestea edota horrelako akordioak hausteko erabakiak hartzea, beren-beregi bere eremuko udal erakundeei dagokienez eta betiere Herrialde Buru Batzarrari alde aurretik esanda eta azken honek hori bere eskumeneko legez galdatzen ez badu. Horren guztiaren berri, albait arinen emango dio Uri Batzarrari.

e) Gidalerro politikoak finkatzea, eta udalerrietako herri-kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea, baita izendapeneko kargudunak ere, haien izendapenean, zuzenean edo zeharka, parte hartzen izan dutenean. Eginkizun horiek Buru Batzarren Artekoetan dituzten ordezkarien bitartez beteko ditu, Buru Batzarren Artekoak dauden udalerrietan.

f) Ohiko zein Ezohiko Uri Batzarretarako deialdia egitea.

g) Uri Batzarrari aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua ekitaldiko lehen hilabetearen barruan aurkeztea, onar ditzan; eta Herrialde Buru Batzarrari kontu aztertzailearen edo aztertzaileen txostenarekin batera bidaltzea, kontuak bateratzea xede.

h) Uri Estatutuetan beren-beregi eratxikitzen zaion beste edozein eginkizun, betiere, Aberri Estatutueta eta Herrialdekoetan ezarritakoaren kalterik gabe.

II. kapitulua.- HERRIALDE BURU BATZARRAK

59. artikulua.- Herrialde Buru Batzarrak dira Herrialde Erakundearen organo betearazleak.

60. artikulua.- Herrialde Buru Batzarrak gehienez 15 kidek osatuko dituzte, kopurua inola ere 10etik behera ezin dela jaitzi; kide horiek hautatuko dira Batzar bakoitzak erabakitzen dituzten antolaketa-arauen eta araudien arabera.

61. artikulua.- Herrialde Buru Batzarrari ondoko hau dagokio:

a) Bere Herrialde Batzarraren erabakiak betearaztea, eta, eskuordetzeaz, Euzkadi Buru Batzarrarenak.

b) Herrialde Batzarra batzartuta ez dagoenean, bere herrialdean EAJ-PNVren zuzendaritza politikoa egikaritzea, bere Herrialde Batzarrari guztiaren berri emanez eta Euzkadi Buru Batzarrak bere eskumenen eremuan hartutako erabakiak errespetatuz.

c) Agintaldiak iraungo duen epealdirako Herrialde Buru Batzarraren jardute-egitaraua Herrialde Batzarrari aurkeztea, bai eta urteroko jardute-planak ere.

d) Gobernu akordioak eta izaera egonkorreko itun politikoak onestea, honako hauean eragina dutenean:

– bere eremuko herrialde erakundeetan, lehenago berauei buruzko informazioa Euzkadi Buru Batzarrean emanez, eta betiere azken honek horiek bere eskumeneko legez galdatzen ez baditu;

– Herrialde Erakunde bakoitzeko Udal Erakunde bitan edo gehiagotan;
eta horien berri albait arinen emango zaio Herrialde Batzarrari.

e) Herrialdearentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena proposatzea, udalerraren maila gainditzen duten plan, proiektu edota ekimenetarako, aberriarentzako interes estrategikoko plan, proiektu eta ekimenetarako ezarritakoaren kalterik gabe.

f) Gidalerro politikoak finkatzea, eta bere eremuan jarduten duten herrialdeko herri-kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea, baita izendapeneko kargudunak ere, haien izendapenean, zuzenean edo zeharka, parte hartzen izan dutenean.

g) Gidalerro politikoak finkatzea, eta udalerrietako herri-kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea euren karguagatik udalez gaindiko eremuan jarduten dutenean.

h) Uri Erakundeen artean azal daitezken desadostasunak ebatzea.

i) Herrialde Batzarrari aurreko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua ekitaldiko lehen hilabetearen barruan aurkeztea, onar ditzan; eta Euzkadi Buru Batzarrari Herrialdeko kontu aztertzailearen edo aztertzaileen txostenarekin batera bidaltzea, kontuak bateratzea xede.

j) Aberri Batzarrari proposamenak aurkeztea.

III. kapitulua.- EUKADI BURU BATZARRA

62. artikulua.- EUKADI BURU BATZARRA aberri mailako organo betearazlea da eta, Aberri Batzarrak eskuordetuta, aginte gorena du. Bere eskumenen eremuan hartutako erabakiak derrigor bete behar dituzte EAJ-PNVren alderdikideek eta gainerako organoek.

63. artikulua.- 1. Euzkadi Buru Batzarra ondoko hauek osatzen dute:

a) Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak, euskalduna izan behar duelarik.

b) Herrialde Buru Batzarretako lehendakariak.

c) Zortzi burukideak.

2. Aurretiaz ikusten bada aurreko puntuaren b) idatz-zatian aipatzen diren Euzkadi Buru Batzarreko kideetarik baten bat gutxienez bi hilabetez kanpoan egon daitekeela, aldi baterako hutsaldi hori

Herrialde Buru Batzarreko idazkariak beteko du edo, Herrialde Buru Batzarreko buruordeak, horrelakoa dagoen kasuetan; ondorio guztietarako, ordezkoa arituko da jarduneko lehendakari legez.

3. Euzkadi Buru Batzarreko kideek gutxienez lau urte egon behar dute alderdikideturik.

64. artikulua.- Euzkadi Buru Batzarrari ondoko hau dagokio:

a) Aberri Batzarrak hartutako erabakiak betearaztea, eta, hau batzartuta ez dagoenean, EAJ-PNVren zuzendaritza politiko nagusia egikaritzea, Aberri Batzarrari guztiaren berri emanaz.

b) Alderdiaren ordezkaritza legala.

c) EAJ-PNVren administrazioa, eta ondore hauetarako:

– Amaitutako ekitaldiko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua Aberri Batzarrari ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan aurkeztea, onar ditzan.

– EAJ-PNVren urteko kontu bateratuak formulatzea, Estatuko Kontuen Epaimahaian aurkezteko.

– Kontularitza, Diruzaintza, Inbentario eta Balantze liburuak eramatea, zeintzuen edukia arau bidez ezarriko den, eta une oro Alderdiaren egoera finantzarioa ezagutzeko aukera eman dezaten.

d) Alderdiaren finantza ekonomiko gaitarako arduraduna izendatzea, bere araudiak ezarriko duen prozeduraren arabera.

e) Hauteskunde Egitasmoak onestea.

f) Hauteskunde kanpainak zuzentzea.

g) Aberri Batzarrari aberri mailako eta aberriz kanpoko erakundeetarako koalizioak, itunak, legealdirako akordioak eta bestelako akordio egonkorrek proposatzea, Aberri Batzarrak onar ditzan.

h) Gobernu akordioak eta legebiltzar mailako itun egonkorrek onestea, honako bi hauetan eragina dutenean:

– bi Herrialde Erakundetan edo gehiagotan,

– Herrialde Erakunde ezberdinetako bi Uri Erakundeetan edo gehiagotan,

eta horien berri al bait arinen emango zaio Aberri Batzarrari.

i) Agintaldiak iraungo duen epealdirako jardute-egitaraua Aberri Batzarrari aurkeztea, hautatuak izan eta hurrengo hiru hilabeteetan, bai eta urteroko jardute-planak ere.

j) Aberriarentzat interes estrategikokoak direlako adierazpena proposatzea herrialdearen maila gainditzen duten plan, proiektu eta ekimenetarako.

k) Gidalerro politikoak finkatzea, aberriko eta aberrikan kanpoko herri kargudunak bideratu, lagundu eta kontrolatzea, baita izendapeneko kargudunak ere, haien izendapenean, zuzenean edo zeharka, parte hartu izan dutenean.

l) Herrialde Buru Batzarrek egiten dituzten EAJ-PNVren giza baliabideen prestakuntza eta plangintza egitarauak koordinatzea.

m) Alderdien Erregistroan eta bere web gunearen bidez Alderdiaren Estatutueta eta gobernu organoen eta ordezkariaren osaketan eginiko edozein aldarazpenen berri ematea, legez ezarritako modu eta epeen barruan.

n) Estatutu hauek eratzikitzen dizkieten gainerako eginkizun guztiak.

65. artikulua.- Euzkadi Buru Batzarrak bere burua zuzenduko du, berak onetsitako araudiaren bidez, eta Aberri Batzarrari emango dio haren berri.

VI. TITULUA DIZIPLINA, BERMEAK ETA ZAINGOA

I. kapitulua.- EPAILE ETA EPAMAHAIK

Lehenengo atala: Arlo orokorrak

66. artikulua.- 1. Eginkizun judiziala egikaritzeko dute epaile eta Epaimahaiek, Batzar eskudunek aukeratuta. Horiek guztiz independenteak izango dira beren eginkizunen egikaritzan.

2. Epaille eta Epaimahaiek eurei dagokien Batzarrean azalduko dute euren zuribidea, baina euren kargua prestutasunez bete dutela adierazteko bakarrik, ez, ostera, euren ebazpenen edukia aztertzeke, azken horiek aipatu besterik ez baitute egingo.

67. artikulua.- Epaille eta Epaimahaiek izango dituzte:

- a) diziplinazko eginkizuna, eta
- b) EAJ-PNVren organoek, arauzko baldintzak bete gabe edo haien eskumenetatik kanpo, hartutako erabakien aurkako aurkaratzeak ebaztea.

68. artikulua.- Diziplinazko eginkizunean ere Epaille eta Epaimahaiek kontuan hartuko dituzte Aberri Epaimahaiak emaniko ebazpenak.

Bigarren atala:
Uri Epaille eta Epaimahaiak

69. artikulua.- Uri Erakunde bakoitzean Uri Epaille edo Epaimahaia egongo da, eta hori osatuko dute hiru urteko antzintasuneko alderdikidetza duten hiru alderdikidek; Uri Batzarrak hirurok aukeratuko ditu urte biko eperako.

100 alderdikiderainoko Uri Erakundeetan hautazkoa izango da Epaillea izatea. 100 alderdikidetik 300erainokoetan hautazkoa izango da Epaillea edo Epaimahaia izatea. 300 alderdikide baino gehiagoko Uri Erakundeetan nahitaezkoa izango da Uri Epaimahaia.

70. artikulua.- Uri Epaille edo Epaimahaiek beren Uri Erakundearen mailan egikaritzen dute diziplinazko eginkizuna.

Haiek ebazten dituzte euren Uri Erakundeko edozein alderdikideren aurkako salaketaren aurka, eta Uri Buru Batzarrak zein Uri Batzarrak hartutako erabakien aurka aurkeztutako aurkaratzeak.

Uri Epaille edo Epaimahaiaren epaitza, Herrialde Epaimahaiaren aurrera eraman ahal izango da.

Hirugarren atala:
Herrialde Epaimahaiak

71. artikulua.- Herrialde bakoitzean eginkizun judiziala Herrialde Epaimahaiak egikarituko du, eta hori osatuko dute hiru urteko antzinasuneko alderdikidetza, gutxienez, duten hiru alderdikidek; Herrialde Batzarrak hirurok aukeratuko ditu lau urteko eperako.

Haren antolaketa eta jardunbide-araubidea Herrialde Batzarrak arautuko ditu.

72. artikulua.- Herrialde Epaimahaiaren ardurakoak izango dira:

1. Lehen auzialdian:

a) Uri Buru Batzarren arteko salaketak, edo Herrialde Buru Batzarretako kideek beren kargua egikaritzean egiten dituzten jarduketan aurka aurkeztutako salaketak;

b) Uri Epailen edo Uri Epaimahaiko kideen aurkako salaketak, haiek euren kargua egikaritzean;

c) Uri Epailerik edo Uri Epaimahairik ez duten Uri Erakundeetan azaltzen diren auziak;

d) Herrialde Buru Batzarrak edo Herrialde Batzarrak hartutako erabakien aurkako aurkaratzeak.

2. Bigarren auzialdian, Uri Epaille edo Epaimahaiak emaniko ebazpenen aurkako apelazioak.

Laugarren atala:
Aberri Epaimahaia

73. artikulua.- Aberri mailan, eginkizun judiziala Aberri Epaimahaiak egikarituko du, eta hori osatuko dute lau urteko antzinasuneko alderdikidetza, gutxienez, duten bost alderdikidek; Aberri Batzarrak bostok aukeratuko ditu lau urteko epealdirako. Haren lehendakaria euskalduna izan behar da, eta Epaimahaiko kideek euren artean aukeratuko dute, eta haren antolaketa eta jardunbide-araubidea Aberri Batzarrak arautuko ditu.

74. artikulua.- Aberri Epaimahaiaren ardurakoak izango dira:

1. Lehen auzialdian:

a) Herrialde Buru Batzarren arteko salaketak, edo Euzkadi Buru Batzarreko kideek beren kargua egikaritzean egiten dituzten jarduketan aurkako salaketak;

b) Herrialde Epaimahaietako kideen aurkako salaketak, haiek euren kargua egikaritzean;

c) Euzkadi Buru Batzarrak, Aberri Batzarrak edo Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak hartutako erabakien aurkako aurkaratzeak.

2. Bigarren auzialdian:

a) Herrialde Epaimahaiek lehen auzialdian emandako ebazpenen aurkakoak;

b) Herrialde Epaimahaiek bigarren auzialdian eman baina lehen auzialdian emaniko ebazpenak berresten ez dituzten ebazpenen aurkakoak.

75. artikulua.- Aberri Epaimahaiko kideak eta Euzkadi Buru Batzarra, organo legez, Aberri Batzarrak bakarrik epaitu ahal izango ditu, aurretik auzia instruitzen duten pertsonak izendatuta.

Aberri Batzarra, eginkizun judiziala egikaritzen duenean, guztiz askea izango da, eta beraren epaitzak ezin izango dira apelatu.

76. artikulua.- Aberri Epaimahaiaren epaitzak ezin apelatu izango dira. Lehen auzialdiko ebazpenen ziozko epaitza bada, pertsona ukituak edo organo ukituak auzia berrikus dadin eska dezake, epaia jakinarazi eta ondorengo 45 egunetako epean

II. kapitulua.- BERMEAK ETA ZAINGOA

77. artikulua.- Aberri Berme eta Zaingo Batzordea organo bat da, eta bera osatuko dute lau urteko antzinatasuneko alderdikidetza, gutxienez,

du ten bost alderdikidek; Aberri Batzarrak bostok aukeratuko ditu. Batzordeburuak euskalduna izan beharko du, eta Batzordeko kideek euren artean aukeratuko dute.

Haren antolaketa eta jardunbide-araubidea Aberri Batzarrak onetsitako araudiaren arabera zehaztuko dira.

78. artikulua.- Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak beren-beregi ditu eratzikita Alderdi barruko hauteskunde-prozesuak jarraitzeko eta kontrolatzeko ahalmenak, bai eta herrialdeetako zein aberriko Alderdi barruko kargudun guztien egoeraren azterketa ere, estatutuen ikuspegitik, betiere, bateraezintasunen sisteman ezarritakoarekin bat etorriz.

Beraren irizpenak, arlo honetan, lotesleak dira; eta haien aurkako errekurtsioa Aberri Epaimahaiari bakarrik jar dakioko.

79. artikulua.- 1. Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak, aldi berean:

a) aberri, herrialde zein uri eremuetako estatutu eta araudien eguneratzea zainduko du, eta horiek interpretatzerakoan kontsulta organoa izango da; eta, egoki jotzen duenean, Batzarrei proposatuko die arau horiek aldaraztea;

b) bitartekari lana egingo du EAJ-PNVren alderdikideen eta organoen artean sor daitezkeen gatazketan, alde horietako batetik eskatzen bazaio soilik;

c) berezko dituen eginkizunak egikaritzeko, aberri, herrialde zein udal eremuetako estatutu eta araudien agiritegi eguneratuari eutsiko dio.

Balizko horietan guztietan, beraren irizpenak gomendioak baino ez dira izango.

2. Aberri Berme eta Zaingo Batzordea legebideztatuta dago, bere eskumeneko arazoetan, auzi-jartzaile legez jarduteko epaileekin eta epaimahaietan.

VII. TITULUA HERRI-KARGUDUNAK

I. kapitulua.- UDALERRIETAKO HERRI-KARGUDUNAK

80. artikulua.- 1. Uri Batzarrari edo udalerrri bateko Uri Batzarrei dagokie udalerrietako karguetarako herri-hautapeneko hautagaiak aukeratzea, hots, alkate eta zinegotziak hautatzea:

a) Uri Buru Batzar bakoitzak edo Buru Batzarren Artekoak proposatuta, halakoa dagoen tokian;

b) Herrialdeetako hiriburuetan, Uri Buru Batzar bakoitzak edo Buru Batzarren Artekoak, halakoa dagoen tokian, eta Herrialde Buru Batzarrak elkarrekin proposatuta.

2. Uri Batzarrak edo Uri Batzarrek, zati batean edo osorik, onar edo ezets dezakete proposamena, edo alderdikideek aurkeztutako beste batzuekin osa dezakete proposamen hori.

3. Herrialde Batzarrak ebatziko du, hari dagokion Herrialde Buru Batzarrak bitartekari lana eginda:

– Buru Batzarren Artekoan, edo Uri Buru Batzarraren edo Buru Batzarren Artekoaren eta Herrialde Buru Batzarraren artean akordiorik ez badago;

– hautagaien behin betiko proposamenaren inguruan, Uri Batzar guztietan ahobatezko ebazpenik ez badago, hiriburuetan izan ezik; hain zuzen ere, hiriburuen kasuan horrekin zerikusia duten Batzarretako bi herenen berrespena behar da.

81. artikulua.- Uri Erakundeak gidalerro politikoak finkatuko ditu, eta udalerriko herri-kargudunen kudeaketa bideratu, lagundu eta kontrolatuko du, bere organo zuzendarien bidez: Uri Buru Batzarra eta Uri Batzarra, edo Buru Batzarren Artekoa eta berau osatzen duten Uri Batzarrak.

Herrialdeetako hiriburuetan, Uri Buru Batzarreko lehendakariak, edo, bestela, Herrialde Buru Batzarrak izendatutako Buru Batzarren Artekoaren kideek Herrialde Buru Batzarrari eta, honen bidez, Herrialde Batzarrari

jakinaraziko diete zeintzuk diren udal kudeaketak herrialde politikan dakartzan ondorioak.

82. artikulua.- Udalerrietako herri-kargudunen eskumeneko diren izendapeneko kargudun guztien izendatze-proposamena aurretiaz dagokion Uri Buru Batzarrarekin edo Buru Batzarren Artekoarekin aztertuko da, halakoa dagoen tokian. Izendapeneko kargudunak alderdikide ez direnean, aurretiazko onarpena beharko da.

II. kapitulua.- HERRIALDEETAKO HERRI-KARGUDUNAK

83. artikulua.- 1. Herrialde Batzarrei dagokie, Herrialde Buru Batzarrek proposatuta, herri-hautapeneko herrialdeetako karguetarako hautagaiak aukeratzea.

Herrialde Buru Batzarrek beren Herrialde Batzarrei aurkezten dizkieten proposamenak egingo dira, Uri Erakundeek euren Batzarretan erakutsi duten gehiengoaren borondateari begirunerik handiena zainduz. Proposamen horiek jakin behar dituzte Uri Erakundeek behar besteko denboraz, hautapena egin behar duten Herrialde Batzarrak egin aurretik.

Herrialde Batzar bakoitzak, zati batean edo osorik, onar edo ezets ditzakete euren Herrialde Buru Batzarraren proposamenak, edo beste hautagai batzuekin osa ditzakete proposamen horiek.

2. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Lehendakarirako hautagaiak, eta Nafarroako Foru Parlamenturako Presidenterako hautagaia, baita Ahalduen Nagusigaia edo Nafarroako Gobernuko Presidentegaia edo Pirinio Atlantikoetako Departamentuko Kontseilari Nagusigaia ere Herrialde Batzar bakoitzak aukeratuko ditu, bere Herrialde Buru Batzarrak aurkezten dituen proposamenak oinarri hartuta.

84. artikulua.- Herrialde Erakundeek gidalerro politikoak finkatuko dituzte, eta euren organo zuzendarien bidez bideratu, lagundu eta kontrolatuko dute herrialdeetako herri-kargudunen kudeaketa.

85. artikulua.- 1. Herrialde eremuko herri-hautapeneko herri-kargudunen eskumeneko diren izendapeneko kargudun guztien izendatze-proposamena aurretiaz aztertuko da, kasuan kasuko Herrialde Buru Batzarrarekin.

2. Prozedura bera beteko da herri-administrazioaren erakunde autonomiadunen eta herri-erakundeen izendapeneko kargu guztien izendapenean, baita ere zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten sozietate publiko eta enpresetan.

III. kapitulua.- ABERRIKO HERRI-KARGUDUNAK

86. artikulua.- 1. Aberri Batzarrari dagokio, Euzkadi Buru Batzarrak proposatuta, aberriko eta aberriz kanpoko herri-hautapeneko karguetarako hautagaiak aukeratzea.

2. Eusko Legebiltzarrerako eta Eusko Jaurlaritzarako Lehendakari gaiek euskaldunak izan beharko dute.

3. Euzkadi Buru Batzarraren proposamenak egingo dira, Herrialde Erakunde guzti-guztiek erakutsi duten gehiengoaren iritziarekiko begirunerik handiena zainduz.

Aberri Batzarrak onar edo ezets ditzake Euzkadi Buru Batzarrak egin dizkion proposamenak, osorik edo zatika, edo beste hautagai batzuekin osatu.

87. artikulua.- Euzkadi Buru Batzarrak eta Aberri Batzarrak finkatuko dituzte gidalerro politikoak, eta aberriko eta aberriz kanpoko herri-hautapeneko herri-kargudunen kudeaketa lagundu eta kontrolatuko dute.

88. artikulua.- 1. Aberriko edota aberriz kanpoko eremuetako herri-hautapeneko herri-kargudunen eskumeneko diren izendatze-proposamena aurretiaz aztertuko da, kasuan-kasuan, Euzkadi Buru Batzarrarekin.

2. Prozedura bera beteko da herri-administrazioaren, erakunde autonomiadunen eta erakunde-enteen izendapeneko kargu

guztiak izendatzeko, baita ere zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten sozietate publiko eta enpresetan.

89. artikulua.- Euzkadi Buru Batzarrek, Herrialde Buru Batzarrek eta Uri Buru Batzarrek, euren eskumenen eremuan eta Euzkadi Buru Batzarrek eta Herrialde Buru Batzarrek elkarrekin hartutako irizpide orokorren arabera, derrigor ezarriko dituzte ekonomi araubidea eta herri kargudunek EAJ-PNVri egin beharreko ekarpenak; eta, era berean, zaindu egingo dute haiek betetzen direla, berraztertuko direla eta aldian adian eguneratuko direla.

Alderdikideak ez diren pertsonak izendapeneko karguak betetzeko izendatzen diren kasuetan, proposatzaileak aurkeztu beharko du proposatutakoak sinatutako idazkia; idazki honetan, proposatutakoaren konpromisoa egongo da, EAJ-PNVren ideologia, egitarauak eta proiektu politikoa onartzeko, bai eta ekonomi araubidea eta adosten dituzten diru ekarpenak onartzeko ere. Idazki hau izendatua izan baino lehen aurkeztu beharko da. Alderdikideen edo alderdikide ez direnen kasuan salbuespenik balego, salbuespen hau exekutiba eskudunak baimendu beharko du.

VIII. TITULUA ALDERDI BARRUKO KARGUETARAKO ETA HERRI-KARGUETARAKO HAUTAGAIAK AUKERATZEA

90. artikulua.- 1. Alderdi barruko hauteskunde-prozesuak gauzatuko dira boto unibertsal, berdin, aske, zuzen eta pertsonalaren araubidean. Botoa isilpekoa izango da, Batzar bakoitzak botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen arteko ehuneko 90eko gehiengo kualifikatuak beste era batekoa egitea erabakitzen duenean salbu. Erabaki hori isilpeko bozketan hartu beharko da.

2. Alderdi barruko karguen hautapenean, bai eta herri-karguetarako hautagaien hautapenean ere, kontuan hartuko da unean-

unean indarrean egongo diren EAJ-PNVren Emakume eta Gizonen arteko Orekarako Planean eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean xedatutakoa.

3. Botoa emateko eskubidea erabiltzerakoan ez da ezein kasutan onartuko zerrenda itxirik, ezta alderdikideei zerrenda bat osorik bozkatzeko derrigortasuna ematen dieten bideetarik ezein ere.

4. EAJ-PNVren barruko hauteskunde-prozesuak beti gauzatuko dira Aberri Batzarrak onetsitako Hauteskundeei buruzko Araudiak agintzen duenaren arabera.

IX. TITULUA KARGUEN EGIKARITZAREN MUGAK

I. kapitulua.- AGINTALDIEN IRAUPENA

91. artikulua.- 1. Agintaldien iraupena urte bikoia izango da uri buru batzarretako karguetarako, eta laukoa herrialdeetako eta aberriko organo betearazleetarako.

2. Aberri Batzarreko ordezkarien agintaldia Euzkadi Buru Batzarraren iraupenekoa eta aldi berekoa izango da; betiere, epealdi horretan Euzkadi Buru Batzarra enkaitzen bada, ordezkariok ez diote beren karguari utziko.

92. artikulua.- Alderdi barruko kargudunak behin bakarrik berraukeratu ahal izango dira, eta agintaldi batek igaro beharko du berriro aukeratua izan ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, kargu horiek hautatzeko eskumena duen Batzarrak beren-beregi eta banan-banan egin ditzake salbuespenak berraukeratzeari jartzen zaion muga hau aplikatzerakoan.

93. artikulua.- 1. Alderdi barruko kargudunak, bera proposatzen dutenean berriro aukeratua izateko, uko egin diezaiokie hautagai-izendapenaren onarpenari, kasuan-kasuan eskuduna den organoan, Alderdi barruko hauteskunde-prozesuaren bigarren txandan bozkatuak izan daitezkeen hautagaien zerrenda gertatzeko unean.

2. Era berean, Alderdi barruko kargua edo agintea duenak uko egin diezaiokie beste kargu bat onartzeari, aurreko paragrafoan ezarritako prozedura bera betez.

II. kapitulua.- BATERAEZINTASUNAK

Oinarri Orokorrak

94. artikulua.- Euzko Alderdi Jeltzaleak bateraezintasunaren adigaia garatzen du, ondoko printzipiook oinarri hartuta: Alderdi barruko karguak eta kanpokoak bereiztekoa; agintea ez metatzekoa, eta kontrolatzen duenaren eta kontrolatuaren arteko figurak ez nahastekoa.

Lehenengo atala: Bateraezintasun osoak

95. artikulua.- 1. Herri-hautapeneko kargu betearazleak edo EAJ-PNVtik kanpoko izendapeneko kargu betearazleak bateraezinak dira Alderdi barruko karguekin, lurralde eremu bereko buru batzarretan eta batzarretan, salbu eta 100 alderdikide baino gutxiagoko Uri Erakundeetan; horietan, Uri Batzarrak uri kargudunaren eta maila bereko herri-kargudunaren arteko bateraezintasuna kendu ahal izango du.

2. Herri-hautapeneko kargu legegileak edo EAJ-PNVtik kanpoko izendapeneko kargu legegileak bateraezinak dira lurralde eremu bereko Alderdi barruko kargu legegileekin.

3. Honetarako, aberriz kanpoko eremua aberrikotzat hartuko da.

4. EAJ-PNVko epaileak eta epaimahaietako kideak, eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeko kideak bateraezinak dira beraien

artean, eta Alderdi barruko beste edozein kargurekin edo herri-kargu batekin.

5. Kontu-aztertzaileak bateraezinak dira Erakundearen Alderdi barruko kargu betearazleekin, baldin eta haren ekonomi ekitaldiaren gaineko txostena eman behar badute.

6. Herrialde Buru Batzarrei edo Euzkadi Buru Batzarrari atxikitako aktiboko langileak bateraezinak dira herrialde eta aberri eremuetako Alderdi barruko edozein kargurekin.

Bigarren atala:
Alderdiaren barruko karguen arteko bateraezintasunak

96. artikulua.- Alderdiaren barruko kargu hauek bateraezinak dira euren artean:

1. Herrialde Buru Batzarreko burukidea eta:

a) Uri Buru Batzar bateko burukidea edo Uri Erakunde batek izendatutako Buru Batzarren Artekoaren kidea, salbu eta Herrialde Batzarrak bateraezintasuna kentzen badu.

b) Euzkadi Buru Batzarreko burukidea, Herrialde Buru Batzarretako lehendakariak izan ezik, horiek Euzkadi Buru Batzarreko berenezko kideak baitira.

c) Herrialde Batzarreko ahalduna.

d) Aberri Batzarreko ordezkaria.

2. Euzkadi Buru Batzarreko burukidea eta:

a) Herrialde Batzarreko ahalduna.

b) Aberri Batzarreko ordezkaria.

3. Herrialde Batzarreko ahalduna izatea eta Aberri Batzarreko ordezkaria izatea.

Hirugarren atala:
Alderdiaren barruko karguen eta herri-kargudunen arteko bateraezintasunak

97. artikulua.- 95. artikuluan aipatutako kasuez gain, elkarren artean bateraezinak dira Alderdi barruko karguok eta herri-karguok:

1. Uri Buru Batzar bateko burukidea edo Buru Batzarren Artekoaren kidea eta:

a) udalerrri bereko, alkatearen 1 eta 2. mailen mendeko izendapeneko karguak;

b) Ahaldu Nagusia edo foru diputatua, edo Nafarroako Foru Gobernuko presidentea edo kontseilaria, edo Pirinio Atlantikoetako Departamentuko Kontseilari Nagusia;

c) Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria edo sailburua, edo Akitania Erregioko kontseilari erregionala;

d) Espainiar estatuko Gorte Nagusietako diputatua edo senataria, edo frantziar estatuko Parlamentuko diputatua;

e) Europar Parlamentuko parlamentaria.

2. Herrialde Buru Batzarreko burukidea eta:

a) 20.000 biztanlerainoko udalerrietako alkatea edo zinegotzia, salbu eta Herrialde Batzarrak bateraezintasuna kentzea erabakitzen badu;

b) 20.000 biztanletik gorako udalerrietako alkatea;

c) 20.000 biztanletik gorako udalerrietako zinegotzia, salbu eta EAJ-PNV ez badago Gobernu Batzordean, horrelakoetan, Herrialde Batzarrak erabaki dezake bateraezintasuna kentzea;

d) Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria edo sailburua, edo Akitania Erregioko Kontseilu Erregionalerako hautagaiak.

e) Eusko Jaurlaritzako sailburuen 1, 2 edota beheragoko mailen mendeko izendapeneko karguak, salbu eta Herrialde Batzarrak bateraezintasuna kentzea erabakitzen badu;

f) Herrialde Historikoko Batzar Nagusietako batzarkidea, edo Nafarroako Foru Parlamentuko parlamentaria, salbu eta Herrialde Batzarrak bateraezintasuna kentzea erabakitzen badu;

g) Eusko Legebiltzarreko parlamentaria, salbu eta Herrialde Batzarrak bateraezintasuna kentzen badu;

h) Estatuko Gorte Nagusietako diputatua edo senataria;

i) Europar Parlamentuko parlamentaria.

3. Euzkadi Buru Batzarreko burukidea eta:

a) 20.000 biztanlerainoko udalerrietako alkatea edo zinegotzia, salbu eta Aberri Batzarrak bateraezintasuna kentzea erabakitzen badu;

b) 20.000 biztanletik gorako udalerrietako alkatea edo zinegotzia;

c) Ahdun Nagusia edo foru diputatua, edo Nafarroako Foru Gobernuko presidentea edo kontseilaria, edo Pirinio Atlantikoetako Departamentuko Kontseilari Nagusia;

d) Foru diputatuen edo Nafarroako Foru Gobernuko kontseilarien 1 eta 2. mailen mendeko izendapeneko karguak, salbu eta Aberri Batzarrak bateraezintasun hori kentzen duenean;

e) Eusko Legebiltzarreko parlamentaria, salbu eta Aberri Batzarrak bateraezintasun hori kentzen badu;

f) Estatuko Gorte Nagusietarako diputatua edo senataria;

g) Europar Legebiltzarreko parlamentaria.

98. artikulua.- EAJ-PNVko kargu betearazleak bateraezinak dira sindikatuen edo enpresen erakundeen barruko antzeko karguekin.

99. artikulua.- 95. artikuluan azaldutako kasuez gainera, bateraezinak dira kargu hauek:

1. Herrialde Batzarreko ahduna eta:

a) Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria edo sailburua, edo Akitania Erregioko kontseilari erregionala;

b) Espainiar estatuko Gorte Nagusietako diputatua eta senataria, eta frantziar estatuko parlamentuko parlamentaria;

c) Europar Legebiltzarreko parlamentaria.

2. Aberri Batzarreko ordezkaria bateraezina da Ahdun Nagusiarekin edo foru diputatuarekin, edo Nafarroako Foru Gobernuko presidentarekin edo kontseilariarekin.

100. artikulua.- Kapitulu honek bateraezintasunei buruz dioenaren ondoretarako:

1. Eusko Jaurlaritzako Sailei datzekien ente, erakunde, institutu edo sozietateen administrazio kontseiluetako zuzendari, kudeatzaile eta kideak berdinetako dira, Eusko Jaurlaritzako sailburuen mendeko 1, 2 edota beheragoko mailen mendeko izendapeneko kargudunekin.

2. Foru Sailei datzekien ente, erakunde, institutu edo sozietateen administrazio kontseiluetako zuzendari, kudeatzaile eta kideak berdinetsiko dira, foru diputatuen edo Nafarroako Foru Gobernuako kontseilarien 1 eta 2. mailen mendeko izendapeneko kargudunekin.

3. Udalerrietako edo udalez gaindiko sozietate, enpresa edota ente publikoetako zuzendari, kudeatzaile eta kideak berdinetsiko dira estatutu hauetako 97. artikuluko 1.a) idatz-zatiak aipatzen dituen izendapeneko karguekin.

4. Aberriko edota herrialdeetako izendapeneko karguak dira izendatze-dekretua aldizkari ofizial egokian argitaratzen dutenak.

101. artikulua.- Izendapeneko kargu baterako izendatuak diren Alderdi barruko kargudun guztiek Aberri Berme eta Zaingo Batzordeari jakinarazi beharko diote egitate hori, izendapena benetan gertatzen denetik astebeteko epean.

Kentzeko moduko bateraezintasuna badago, Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak berehala emango dio horren berri Alderdi barruko organo betearazle eskudunari, estatutuetan ezarritakoaren arabera, alderdikideei iritzia eskatzeko prozesuari hasiera emateko.

*Laugarren atala:
Bateraezintasunak kentzea*

102. artikulua.- 1. Bateraezintasuna ezin izango zaie kendu Alderdi barruko organo betearazle bateko kideen ehuneko 40ri baino gehiagori.

2. Bateraezintasuna kendu beharra dakarten kideen kopurua handiagoa bada aurreko idatz-zatian ezarritako mugak onartutakoa baino, orduan hautetsi izaera galduko dute boto kopuru gutxien lortu dutenek.

3. Inguruabar hau Euzkadi Buru Batzarreko kideak hautatzerakoan gertatzen bada, 1. idatz-zatian ezarritako ehuneko 40ko muga osatzeko lehentasuna izango dute Herrialde Buru Batzarretako lehendakariak, eta orduan Aberri Batzarrak berak ebatziko du Aberri

Batzarrak aukeratutako burukideetatik nori edo nortzuei kenduko zaien bateraezintasuna eta hautetsiak izaten irauin.

103. artikulua.- Bateraezintasuna kentzea onetsi edo ezetsi beharko da 45 eguneko gehienezko epean, bateraezintasun hori sortzen den egunetik zenbatuta.

Organo betearazle bakoitzak alderdikideei iritzia eskatzeko prozesurako bidea hasiko du, hala badagokio.

104. artikulua.- Aurreko artikuluan aipaturiko epea igaro ondoren, edo bateraezintasuna kentzea ezetsi bada, bateraezintasuna duenak, bost eguneko epean, adierazi beharko dio organo betearazle eskudunari, herri-karguari uko egiten dion, edo bera hautatu zuen Batzarrari aurkezten dion Alderdi barruko kargurako karguztea edo ukoa. Onarpena edo ezespina, gehienez, 30 eguneko epean ebatzi beharko da.

105. artikulua.- Alderdi barruko organo betearazleak berriztatzeko, aurkezten badira hautagai batzuk, eurak hautatuz gero, bateraezinak suertatzen direnak, orduan inguruabar hori beren-beregi agerraraziko da, eta, aukeratuak badira, aukeratze horrek berez dakar bateraezintasuna kentzea, baldin eta bateraezintasun hori kendu ahal bada, alderdikideei iritzia berriro eskatu beharrik gabe.

106. artikulua.- 1. Bateraezintasunak kendu ahal izango dira estatutuetan ezarritako balizkoetan bakarrik; eta, nolnlahi ere, pertsona bakoitzeko eta beren-beregi erabaki beharko da.

2. Bateraezintasuna sortzen bada Alderdi barruko kargu bat eta herri-kargu bat aldi berean betetzeagatik, orduan bateraezintasuna kendu beharko du Alderdi barruko kargua betetzeagatik erantzuna jaso beharreko Batzarrak.

Hala eta guztiz ere, Herrialde Buru Batzar bateko lehendakari batek egikaritzen badu, aldi berean, Eusko Legebiltzarreko parlamentariaren

kargua, orduan, Euzkadi Buru Batzarreko kidea izateagatik duen bateraezintasuna kentzea Herrialde Batzar eskudunak ebatziko du.

III. kapitulua.- KARGUAK EZ METATZEA

107. artikulua.- Aberri, Herrialde eta Uri Batzarrek, euren eskumenen eremuan, zainduko dute pertsona batek karguak ez metatzearen gaineko araua betetzen dela. Horretarako, eurek egoki jotzen dituzten erabakiak hartu eta arauak emango dituzte, eta horiek eta Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak eskatzen dizkien datu guztiak eskuratuko dizkiote, honek azter dezan Alderdi barruko kargu guztiak betetzen dutela estatutueta ezarritako egoera.

X. TITULUA EAJ-PNVren ANTOLAKETA EKONOMIKOA

108. artikulua.- 1. Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco k gaitasun juridiko osoa du, bere ondasun eta eskubideak eskuratu, besterendu eta haien gainean beharrezko jotzen dituenak egiteko, haren organo zuzendariek heien eskumenen eremuaren barruan erabakitakoaren arabera.

2. EAJ-PNVren ondarea Uri, Herrialde eta Aberri erakundeen ondasunek, Euzkadiz kanpoko erakundeen eta Euzko Gaztediren eskubideek eta betebeharrekin osatzen dute, baita haien mendeko erakunde horiei atxikitako organismo, entitate eta sozietateen ondareak, eta aurreko guztiei lotutako fundazio eta elkarten ondareak ere.

3. Euzkadi Buru Batzarrak ezarri eta onetsiko ditu Herrialde Buru Batzarren ogasunak eta haiei dagozkien Uri Erakundeetako,

Euzkadiz kanpoko Erakundeetako eta Euzko Gaztediko ogasunak eraentzen dituzten legeak.

4. EAJ-PNVren ondasuna osatzen dutenak ondorengoak dira:

– edozein titulu bidez jaso diren edo jasoko diren ondasunak, higigarriak zein higiezinak;

– alderdikidetzaren kuotak eta ezohikoak, nahitaezkoak izan edo ez;

– alderdikideen eta alderdizaleen ekarpenak;

– herri-hautapeneko eta izendapeneko herri-kargudunek derrigor eman behar dituzten kopuruak, alderdikide izan edo ez;

– jasotzen diren jaraunspen eta legatuak;

– jasotzen diren emari eta eskuzabaltasunak;

– Alderdiaren beraren jardueren etekinak eta Alderdiaren egoitzetan tradizioz egin izan diren jardueren etekinak, ondarearen kudeaketatik eratorritako sarrerak, promozio jardueretatik datozen etekinak eta EAJ-PNVk bere helburuetarako eman ahalko dituen zerbitzuetatik erator daitezkeenak, zuzenean edo bere menpeko organismo, erakunde eta sozietateen bidez;

– hauteskunde gastuak finantzatzeko eta EAJ-PNVren ohiko jardunbiderako ematen diren diru-laguntza publikoak eta legez ezarri ahalko diren ohiz kanpoko diru-laguntzak;

– EAJ-PNVk erakundeetan burutzen duen jardueratik datozen sarrerak, eta bereziki ganbera ezberdinetan, batzar legegileetan, Batzar Nagusietan eta Toki Administrazioetako organoetan eratutako taldeetatik eratorriak;

– mailegu edo eta kredituetatik datozen funtsak.

109. artikulua.- 1. Euzkadi Buru Batzarrak Ohiko Aberri Batzarrean ekitaldi bakoitzaren emaitza ekonomiko-finantzarioen berri emango du, Kontu-Aztertzaileen Batzordeak egin beharreko txostena aurkeztu ondoren; eta Aberri Batzarrean aurkeztuko du urteko aurrekontua, batzarrak onar dezan.

2. Kontu ematean aurkeztuko dira urteko galera eta irabaziak, Euzkadi Buru Batzarraren egoera balantzea eta Herrialde Batzarrena.

Xede honekin, Herrialde Buru Batzarrek ekitaldiko lehen bi hilabeteen barruan eta Ohiko Aberri Batzarra ospatu baino lehen, Euzkadi Buru Batzarrari helarazi beharko dizkiote beren herrialdeko Uri Erakundeen urteko kontuak. Herrialde Buru Batzarren urteko kontuekin ere bidaliko dira Herrialde bakoitzeko Kontu-aztertzaileek egin beharreko txostenak.

Euzkadiz Kanpoko Erakundeek eta Euzko Gaztedik urteko kontuak Euzkadi Buru Batzarrari bidali beharko dizkiote urteko lehen bi hilabeteen barruan.

3. Uri Erakundeek beren kontuak onartu eta Herrialde Buru Batzarrari bidali beharko dizkiote ekitaldiko lehen hilabetearen barruan.

4. Uri eta Herrialde Erakundeek, Aberri Erakundeak eta, beren kasuan, Euzkadiz Kanpoko Erakundeek eta EGIk beren azpian dauden organismo, erakunde, fundazio, elkarte eta sozietateen urteko kontuak eskatu ahalko dituzte. Kontu hauek derrigorrez bidali beharko dira, ekitaldia itxi eta ondorengo hiru hilabeteko epe barruan, mendekotasun edo lotura organikoa denean edo/eta indarrean dagoen legeriak hala eskatzen duenean.

110. artikulua.- 1. Euzkadi Buru Batzarra, EAJ-PNVren organo gorena da, eta bera da erantzule subsidiarioa Estatuko Kontuen Epaimahaiaren aurrean, eta bertan aurkeztuko ditu Alderdiaren egoera finantzario guztiak eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko urteko kontuak, derrigorrezko baterakuntza mailan eta legez ezarritako epeen barruan.

2. Euzkadi Buru Batzarrarena izango da bere web gunean gardentasun eta gobernu onaren inguruan Alderdiak bere jarduera egitasmoan ezarriko dituen edukiak argitaratzeko erantzukizuna.

3. EBBk bere Araudian ezarriko du kontabilitate liburuak eramateko erregimena EAJ-PNVren Estatutueta ezarritakoaren eta kasu bakoitzean aplikagarri den legeriaren arabera.

111. artikulua.- 1. Aberri Batzarraren erabaki batek finkatuko ditu Uri Erakundeek euren Herrialde Erakundeei eta hauek Aberri Erakundeari

eman beharreko gutxienezko diru-ekarpenak; izan ere, ekarpenok alderdikideen ordainketetatik edota beste diru-sarreretatik kenduko dira.

2. Nolanahi ere, Uri Erakundeek Buru Batzarren Artekoan, Herrialde Batzarrean edo Batzar Nagusian duten ordezkartasuna, eta Herrialde Erakundeek Aberri Batzarrean duten ordezkartasuna badago haiek osatzen dituzten alderdikideen kopuruaren arabera, orduan benetan ordaindu eta abenduaren 31n kontabilizatuta dauden kuoten kopurua bakarrik hartuko da kontuan. Ordezkartasun hori orduantxe geldituko da finkatuta urte osorako.

112. artikulua.- EAJ-PNVren buru batzarrei beren-beregi dagokie Alderdiaren ondarearen defentsa eta kudeaketa.

XI. TITULUA KOMUNIKAZIO ETA IRUDIAREN ESKUARTEAK

113. artikulua.- Euzkadi Buru Batzarrari dagokio EAJ-PNVren komunikabideen eta irudiaren eskuartekiko politika orokorra.

Herrialde Buru Batzarrei dagokie EAJ-PNVk komunikabideen eta irudiaren eskuartekiko duen politika, haien Herrialdeari dagozkion arazoetan, bai eta Euzkadi Buru Batzarraren erabakiak betearaztea ere.

Uri Buru Batzarrari dagokio EAJ-PNVk komunikabideen eta irudiaren eskuartekiko duen politika, haren udalerritari dagozkion arazoetan, bai eta Herrialde Buru Batzarren erabakiak betearaztea ere.

114. artikulua.- Euskara izango da adierazpenetan eta prentsaurrekoetan lehentasunez erabiliko den hizkuntza.

XII. TITULUA ABERRI ESTATUTUAK ALDARAZTEA

115. artikulua.- Aberri Estatutuak aldarazteko, ondoko hau behar da:

1. Euzkadi Buru Batzarrak ekitea, bai bere ekimenez, bai honako hauek eskatuta:

a) Aberri Batzarrak.

b) Aberri Berme eta Zaingo Batzordeak.

c) Herrialde Batzar batek.

d) Herrialde Buru Batzar batek.

e) Hogei ordezkari edo Herrialde Erakunde batek Aberri Batzarrean dituen ordezkari guztiek.

f) EAJ-PNVren Uri Erakundeen BOSTENAK edo alderdikideen bostenak.

2. Berriztapen-proiektuan beren-beregi adieraztea estatutuatarako proposatzen diren aldarazpenak.

3. Aberri Batzarrak gehiengo osoaz onets dezala, alderdikideei iritzia eskatu ondoren.

4. Batzar Nagusiak berronestea bertan egon eta botoa emateko eskubidea dutenen gehiengo osoaz.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Aberri Batzarrak, EAJ-PNVren Erakundeak eragin eta biziberritze aldera, barkatu ahal izango die erakundeoi, estatutu hauetako artikulua batzuk ez betetzea, baldin eta hori beharrezkotzat hartzen badu, Euzkadi Buru Batzarrak helburu horretarako Aberri Batzarrari aurkeztu dizkion jarduketa planak garatu eta betearazteko.

BIGARRENA.- EBBk EAJ-PNVren Aberri Estatutueta alderdi politikoen inguruan indarrean dagoen legeriak eta une bakoitzean aplikagarri izango den legeriak ezarritako behar besteko aldarazpenak egin ahalko ditu eta Alderdiaren Aberri Batzarrari jakinaraziko dizkio. Aldarazpen hauek balio osoa izango dute eta dagokion organoak berretsiko ditu, egokia bada.

Ondore horretarako, Euzkadi Buru Batzarrak EAJ-PNVren Aberri Batzarra premia osoz deituko du, eginiko aldarazpena onar dezan edo ez.

HIRUGARRENA.- EAJ-PNVren disoluzioa egokia balitz, Aberri Batzarrak, une horretan aberri esparruaren barruan beren eginkizunak beteko dituzten kontu aztertzaileren kontrolpean, ondarea kitatzeari ekingo dio inolako organismo edo agintaritzaren esku hartzerik gabe, eta ondoren geratuko den ondare likidoa, zuzenean edo zeharka, Alderdiaren helburuekin zerikusia izan dezakeen eta irabaz asmorik ez duen erakundeari eman ahalko dio.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Estatutu hauetan alderdikideentzat aipatzen diren eskubide-murrizketa guztiek ondoreak ekarriko dituzte estatutuok onetsi eta berronetsi ondoren, eta ez dira kontuan hartuko ordu arte izandako inguruabarrak.

BIGARRENA.- Estatutu hauek indarrean jarriko dira Batzar Nagusiak beraiek berronesten dituen egun berean.

ERANSKINAK

SINBOLOA: Bere sinboloa bi elementuk osatzen dute eta hauek dira: anagrama edo koloreko bola eta logotipoa, EAJ-PNV hitzarekin. Markaren inguruan sinboloa babesteko zuriunea izango du eta ez du inolako elementu eraldatzaile ikusgarririk izango, ez testurik, marrazkirik ezta apaingarririk ere. EAJ-PNVren irudi ikusgarriak bere historia osoan ordezkatu duten betiko kolore berde eta gorria izango ditu. Anagramak berdetik gorrira doan degradatua eramango du eta logotipoak kolore beltza izango du.



Bozketa orrietan erabiltzeko, onartuta dago kolore bakarreko bertsio beltza erabiltzea, koloreak tinta bakarrarekin ordezkatzeko ditu eta positiboan edo negatiboan joan daiteke.

SIGLAK: EAJ-PNV

WEB GUNEA ETA POSTA

ELEKTRONIKOKO HELBIDEA: Web gunea www.eaj-pnv.eus da eta posta elektronikoko helbidea ebb.idazkaritza@eaj-pnv.eus

BATERAEZINTASUNEN TAULA

UBB BURU BATZAR- ARTEKOAK	BAI KENTZ.		EZ	EZ	EZ	OSOA
	HERRIALDE BATZ.					
HERRIALDE BURU BATZARRAK	BAI KENTZ.	OSOA	OSOA		OSOA	OSOA
	HERRIALDE BATZ.		Lehendakariak salbu			
EUKADI BURU BATZARRA	EZ	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA
		Lehendakariak salbu				
HERRIALDE BATZARRETAKO AHALDUNAK	EZ	OSOA	OSOA		OSOA	OSOA
ABERRI BATZARRETAKO ORDEZKARIAK	EZ	OSOA	OSOA	OSOA		OSOA
EPAILEAK, EPAIMAHIAK eta A.B.Z.B.	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	
	UBB BURU BATZAR- ARTEKOAK	HERRIALDE BURU BATZARRAK	EUKADI BURU BATZARRA	HERRIALDE BATZARRETAKO AHALDUNAK	ABERRI BATZARRETAKO ORDEZKARIAK	EPAILEAK, EPAIMAHIAK eta A.B.Z.B.
ALKATE eta ZINEGOTZIAK	OSOA U.E.>100 ald. URI BATZ U.E.<100 ald.	OSOA >20.000 bizt. HERR.BATZ >20.000 (oposizioan) HERR.BATZ <20.000	OSOA >20.000 bizt. ABERR.BATZ. <20.000 biztanleak	EZ	EZ	OSOA
ALKATEEN 1. eta 2. MAILAKO IZENDATUAK (1)	OSOA	EZ	EZ	EZ	EZ	OSOA
AHALDUN NAGUS. eta FORU AHAL., NAFARROAKO GOB. PRES. eta PIRINIO ATLETAKO KONTS. NAG.	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA
FORU AHALDUNEN 1. eta 2. MAILAKO IZENDATUAK (2)	EZ	OSOA	BAI KENTZ. ABERRI BATZARRA	OSOA	EZ	OSOA
E.J.-ko LEHENDAKARIA eta SAILBURUAK, eta AKITANIA ESKUALD. KONTS.	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA
SAILBURUEN 1., 2. Eta OSTEKO MAILETAKO IZENDATUAK (3)	EZ	BAI KENTZ. HERRIALDE BATZ.	OSOA	EZ	OSOA	OSOA
BATZAR NAGUSIAK eta NAFAR. FORU PARLAMENTUA	EZ	BAI KENTZ. HERRIALDE BATZ.	EZ	OSOA	EZ	OSOA
EUSKO LEGEBILTZARRA	EZ	BAI KENTZ. HERRIALDE BATZ.	BAI KENTZ. ABERRI BATZARRA	EZ	OSOA	OSOA
KONGRESU, SENATU, FRANTZIAR ESTKO PARLAMENTUA eta EUROPAR LEGEBILTZARRA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA	OSOA

(*) Aberri Estatutuak 95. artikuluko 5 eta 6. idatz-zatietan, hurrenez hurren, agertzen diren kontu-aztertzaileak eta Herrialde Buru Batzarrei edo Euzkadi Buru Batzarri atxikitako aktiboko langileei buruzko bateraezintasunak ez dira taulan agertzen.

(1) Ikus Aberri Estatutuak 100. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako karguak ere.

(2) Ikus Aberri Estatutuak 100. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako karguak ere.

(3) Ikus Aberri Estatutuak 100. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako karguak ere.

**2005eko ekainaren 6an egindako
EZOHIKO ABERRI BATZARRAREN ERABAKIA**

2004ko Aberri Estatutueta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko

**EAJ/PNVren EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO OREKARAKO
PLANA**

- 1.- Emakume eta gizonen arteko orekarako planaren helburua da emakume eta gizonen arteko parekidetasuna ezartzea, Alderdi barruko eta erakundeetako karguetarako egiten diren proposamenetan.
- 2.- Salbuespen bat ezarriko da, BETETZEA EZINEZKOA IZATEAGATIK; ezintasun hori egiaztatu beharko da sinesgarriro, eta hori kontrolatuko dute Estatutuen defentsa eratzikita duten organoek.
- 3.- Emakume eta gizonen arteko ordezkaritza parekidearen irizpidea erabiliko du EAJ/PNVk, Alderdi barruko eta erakundeetako karguetarako hauteskunde-prozesuetarako, eta irizpide hori sartuko da modu formalean Alderdiak hurrengo Batzar Nagusirako egin beharko duen antolaketa-berriztapen eta Estatutu eta Araudien eraldaketarako proiektuan.